

Uztarrria

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA



AMATASUNA

AMA IZATETIK, AMAK IZATERA


I N N O V A
AZPEITIA
HORTZ KLINIKA
Jose Artetxe 5 • 943-02 59 55

**ORTODONTZIA
AURRERAKOENA
ZURE ESHURA**



AIRE BERRITUAK

1 ARNASTU

Garbitu airea, zure etxeko partikulak, alergenak adibidez, kenduz. **Dyson etxea, Milar Larramendin** bakarrik.



2 XURGATU

Ke-erasuzgailu desberdinak ditugu: isilak, eraginkorrak eta garbiak. **Aukeratu zurea!**



3 BERRITU

Eman sukaldeari itxura berria, armairuak eta kaxoiak bakarrik aldatuz. **Obra txikia, aldaketa handia!**



Julio Urkixo, 16 bis • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus

Erronka berriei
aurre egiteko,
aldatu beharra dago.
Iritsi da **TicketBAI.**

Enpresek aurrera egiten dutenean,
Gipuzkoak aurrera egiten du.

Itxasgizona
Fora Alderdiak
Udaltzako Foruak
di Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Da futuro



TicketBAI
GIPUZKOAN

gipuzkoa.eus/ticketbai



UZTARRIA 247

2022-MARTXOA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Iritzia Julene Frantzesena,
<i>Emakumeen itzala.</i> | 26 | Erretratua Karmele Zabaleta
merkataria. |
| 6 | Zu zeu Iñaki Urkia marinela. | 31 | Iritzia Imanol Amiano, <i>Hementxe dala.</i> |
| 8 | Nire leihotik Alaitz Ruiz,
<i>Arnas(g)uneak.</i> | 32 | Plazan bazan |
| 10 | Iritziak Luis Gurrutxaga, <i>Herriko errota zaharra</i> ; Txetxu Urbieto, <i>Matrikula.</i> | 34 | Atzera Begira Javier Iraeta
eskultorea. |
| 12 | Elkarrizketa Estela Lapeira
irakaslea eta ikertzailea. | 39 | Iritzia Ione Gurrutxaga, <i>Gogoan.</i> |
| 18 | Erreportajea Amatasuna. | 40 | Iritzi grafikoa Itziar Aranguren. |
| 25 | Lehiaketa | 42 | Klik! Azpeitiko tontorrak. |
| | | 46 | Iritziak Miel A. Elustondo, <i>Hil arte bizi</i> ; Aintzane Garmendia, <i>Lili bat.</i> |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarria@uztarria.eus
www.uztarria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Julene Frantzesena
Maialen Etxaniz

Ihintza Elustondo

Diseinu arduraduna
Ibaxo Iraeta
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Alaitz Ruiz

Luis Gurrutxaga
Txetxu Urbieto
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Imanol Amiano
Ione Gurrutxaga
Miel A. Elustondo
Aintzane Garmendia
Nagore Aizbitarte

Arnaitz Rubio Aprea

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2500 ale



PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 67 943-50 94 47 **AZKOITIA**
Urtiarle 9 bis 943-15 00 23 **AZPEITIA**

KIRURI



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62



CITROËN

Alertza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
alertza@alertzaautoak.com



EuroTaller EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrokoak

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikazargi@ika.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Iuba
ahelkularitza

Analitikaritzak
libros
lehenak
konposak

Gestioi lanak
Finan administratibak
Gestio inmobiliariak

Tfn: 943 157 329 Faxa: 943 157 379
Eguren saltea: 43-41 Iuba.com/whatsapp/943157329



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: **688 69 29 51**

adi ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Tallia 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
arrediseinu@gmail.com
Matricula urte osan zabalik

IRENE ALTUNA
KOMAGENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikomagenda.com

AZKOITIA



ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!



Emakumeen itzala



JULENE FRANTZESENA

Pare bat hilabete dira aldizkari honetan herriko kale izendegiari buruzko erreportaje bat argitaratu zela. Susmoa berresteko balio zuen lan hark: emakumeen arrastorik ez da Azpeitiko kale izendegian (ere). Gezurra, bada. Bada emakume izena duen plaza bat, Balentina Agirre plaza, hain zuzen ere. Listo, ordea.

Neure artean hasi nintzen pentsatzen herrian ez al den izan kale izendegian bere lekua merezi duen emakumerik, eta kostatu egin zitzaidan izen pare bat mingainaren puntara ekartzea. Egin zuek ere ariketa: zein emakume azpeitiarren izena jarriko zenioke herriko kale, plaza, estrata edo auzune bati?

Historikoki ezkutatu egin da emakumeen jarduna, eta horren isla dira kale izendegiak ere, baita nire oroiterian historiako emakume azpeitiarren arrastorik ez izatea ere. Gizonak gizonen izenak jartzen; eliztarrek Elizarekin lotura duten izenak jartzen; frankistak aro hartan konplize izan zirenen izenak goraipatzen. Gizonen eta emakumeen artean egin den arrakalaren erakuslea da, nahiz eta altzoan behin agertu izan den emakume santuren izenen bat; kuriosoa ez al da emakumea horrela islatzea kale izendegian? Olazko Andre Mariaren plaza, adibidetzat.

Aurreko mendetik atzerako emakume azpeitiarren erreferentziarik ez izateaz harago, beste gogoeta bat: emakume batek zer egin beharko luke kale bazterren batean bere izena duen plakatxo bat 'irabazteko'? Ez al da politikagintzan, kirolean, lan munduan, gizarte arloan... ekarpena egin duen aski emakume herrian? Badira, badira historian arrastoa utzi duten herritarrak, baina noiz hasten da historia? Historia hurbilak ez al du balio halako aitortzaren bat egiteko? Pertsona batek hil egin behar al du –hala ematen du askotan– aitortza jasotzeko? Falta denarekin oroitzen gara, falta denean akordatzeko gara izan zenaz.

Zabalago hartuta: historia ezkutatu duenak, zergatik egin du? Kaleetan ere ba al dago memoria? Edo kaleetatik ere ezabatu egiten dugu memoria? Existitzen ez dena ez al da? Eta den guztia existitzen al da? Idazle batek esana da: "Batzuetan alderantzizkoa ere uler daiteke: alegia, izendatzen ez den hori dela".

Ezkutarazi duten hori argitara ateratzea noren ardura da? Ez al da ardura kolektiboa? Herriko umeek gaurdanik jakin behar dute emakumeek ere egin dutela Azpeitia, eta nahiko nuke hemendik hamarkada batzuetara, gure ondorengoei gizonenak adina emakume izen etortzea mingainaren puntara. Izana, izen. Edo alderantziz, izena izan.

Martxoaren 8aren bueltan ahoa betetzen zaigu aldarrikapenez, baina 9an, ez gara akordatzeko atzo izan zirenez. Noiz egingo ditugu atzorako eginda behar zuketean lanak? ■■■

**EMAKUMEAK ZER EGIN
BEHAR LUKE KALEREN
BATEAN BERE IZENA
DUEN PLAKATXO BAT
'IRABAZTEKO'?**

Iñaki Urkia: "Negua da niretzat gogorrena"

TESTUA: MAILLO OIARZABAL

ARGAZKIA: IÑAKI URKIA

Datorren uztailen beteko dira bederatzi urte Iñaki Urkia (Azpeitia, 1978) itsasoan lanean hasi zenetik. Lanbide gogorra dela dio, baina baita "harrapatu egiten" duen horietakoa ere.

Azpeitiarra eta arrantzale. Nolatan?

Donostian bizi eta Azpeitian egiten nuen lan, eraikuntzan. 2012an, krisiaren eraginez, langabezian gelditu nintzen. Egoera berria zen niretzat. Ezin nintzen geldirik egon, familia neukan eta zerbait egin behar nuen. Pasai San Pedroko [Gipuzkoa] Itsas Eskolan sartzeko aukera sortu zitzaidan, itsasontzietan lan egiteko behar nuen titulazioa lortu nuen, eta ondoren, curriculumak utzi nituen San Pedroko kofradian eta beste toki batzuetan. 2013ko sanferminetan deitu zidaten, hegaluze deskarga bat egiteko; goizean deskarga hori egin eta arratsaldean itsasora irten nintzen lehen aldiz.

Zein itsasontzitatik deitu zizuten?

Gaztelugatxeko Doniene ontzitzik. Bertan jarraitzen dut lanean.

Zer arrantza motatan aritzen zarete?

Hiru jardueratan aritzen gara. Neguan, kostatik gertu mugitzen gara, itsas hondoa zabaltzen ditugu sareak; legatz pixka bat, eta batik bat zapoak arrantzatzen ditugu. Ondoren, berdelaren kanpainan sartzen gara, eta gero hegaluzearena etortzen da. Negukoak irteera laburrak izaten dira, hiru bat egunekoak. Berdeletan, normalean, egunero irten eta porturatzen gara; gehienezko kopuru bat arrantzatu ahal izaten dugu, kupoagatik; hori osatutakoan, gertuen dugun portura joaten gara deskargatzera, eta hurrengo egunean berriro itsasora. Hegaluzetan ari garenean, berriz, irteera bakoitzean hamabost-hogei egun jarraian egiten ditugu itsasoan.

Hiruetatik zein da gogorrena?

Negukoa. Sasoiko eguraldiak eransten dion gogortasunaz gain, lana bera ia atsedetik gabekoa izaten da. Zortzi ordu eman ditzakezu sare bat jasotzen; jaso, bota, eta beste baten bila. Sareak

nola etorriko zaizkizun ez duzu jakiten, garbi ala zikin azalduko diren; aspaldian zabor eta plastiko asko ari gara jasotzen. Igandean irten eta asteazkenean itzulita, guztira sei-zortzi ordu izan ditzakegu lotarako.

Lanbide gogorraren fama dauka arrantzalearenak. Ondo irabazitakoa?

Gogorra da, bai. Ez zaude lur geldian lanean, eta ordu asko dira etxetik kanpora.

Zeuri, zer egiten zaizu gogorrena?

Hasi nintzenean, etxetik kanpora hogei egun egotea zen gogorrena, eta gainera, etxekoekin telefonoz hitz egiteko aukerarik ez izatea, kostatik urrun gabiltzanean ez dugu-eta normalean konexiorik edukitzen; satellite bidezko konexioa erabil dezakegu, baina oso garestia da eta muturreko egoeretan bakarrik erabiltzen da. Gaur egun, ordea, negua da niretzat gogorrena, batik bat fisikoki; urteak aurrera doazen heinean, gehiago nabaritzen da.

Eta zer da gehien gustatzen zaizuna?

Ofizio polita ere bada. Edonork egunero ikus ezin ditzakeen gauzak ikusten ditugu, eguzkiaren irteera edo sarrera itsasoan, esaterako; batzuk argazki horien bila joaten dira, eta guk egunero ikusten ditugu. Edo baleak, orkak... bertatik bertara. Harrapatu egiten zaitu, hala da. Neuk askotan esan izan dut, "nahiago nuke itsarora irtengo bagina"; egia da berehala pasatzen zaidala ere, eta hiru egunera "etxera noiz ailegatuko ote gara?" galdezka hasten naizela.

Itsasoan lan egin nahi duen jendea aurkitzea gero eta zailagoa dela diote ontzi jabeek.

Lehen ondo kobratzen zen, baina gaur egun ez; urte batzuk beste batzuk baino hobeak izan daitezke, baina ez dago lehengo konturik. Lan asko egin behar duzu, urte osoan gelditu gabe ia, etekin pixka bat ateratzeko. Guk arraina oso merke saltzen dugu kofradian; baina joan zaitez arrandegira, eta izugarrizko prezioak daude. Hor tartean dauden bitartekariak izugarri sartzen dute poltsikoan, kolpe zorririk jo gabe. Etxe asko elikatzen dugu, azkenean. ■



Arnas(g)uneak



ARGAZKIA ETA TESTUA: ALAITZ RUIZ

Denok ditugu
momentu,
toki,
pertsona kuttunak.

Nahiz eta agian
arrazoia jakin ez,
bakean,
etxean
sentiarazten gaituztenak.

Batzuetan
errepikatu egiten dira
behin eta berriz,
besteetan
oharkabea aurkitzen.

Eta zeinen polita den momentu
hori.
Zeinen beharrezko.

Nik ere baditut nireak,
eta berrien bila jarraitzen dut,
beti.

Eta zuk?
Zeintzuk dira zureak? ■■■







Herriko errota zaharra

Joan Mari Lekuonaren poeman oinarritutako Xabier Leteren *Errota Zaharra* kantak herriko errotaren garaietara narama. Errotaz aparte, okindegia ere bazen, eta gerra ondorengo hamarkadetan famatua izan zen bailara osoan, besteak beste, ekoizten zuen ogia oso estimatua zelako.

"Antza denez, Martirietatik etorri ziren Nuarbera gure arbasoak", diote bertan jaio eta hazi ziren Begoña eta Inma ahizpek. Beno, Epelde abizena... Azkoitia aldekoa da.

Esaten diet, umea nintzela, 60ko hamarkadan, ikaragarritzko mugimendua egon ohi zela errota inguruan. "Bai, joan-etorri handia egon ohi zen gure etxean", dio Inmak. "Pentsa, herriko apaiza

ere behin baino gehiagotan gelditzen zen bazkaltzen –dio barrez– eta Marisa auzoko maestra soraluzetarrak gurean zuen bizilekua. Nolako bizipen gozoak...", erantsi du. Joanito *Txistuk*, morroi 12 urterekin, –"jaunartze handia egin nuenean"–, dio inguruko baserri guztietatik etortzen zirela garia edo artoa ehotzera eta errota aurea sekulako astotegia bihurtu ohi zela hainbat egunetan: "Jabea oso umezalea zen, eta guretzat errota jolaslekua bihurtu zen.

**60KO HAMARKADAN,
IKARAGARRIZKO
MUGIMENDUA EGON
OHI ZEN ERROTA
INGURUAN**

Etxe handia izanik, txoko ugari zituen ezkutaketan ibiltzeko. Beno, eta fiat berdean nagusiarekin ogia banatzera joatea zen saririk preziatuena, ez baikenuen aukerarik izaten autoan ibiltzeko. Beste garai batzuk ziren haiek".

Istorio ugari kontatu izan dizkigute, batik bat gerra ondorengo urte beltz haietakoak, gose eskasia orokortua zenekoak. Elikagaiak oso urri zirenean eta Francok arrazionamendua inposatu zuenean, estraperloa hedatu zen gizartean, eta errotek guardia zibilen zaintza gogaikarria nozitu ohi zuten; errota edo okindegi jabeek trikimailu ugari behar izaten zituzten isunak saihesteko. "Kamioika irin gure baserrian ezkutatu eta gero, zakuak

HAUXE BAI JENEROAI



pixkanaka ekartzen hituan Landetako okindegira", kontatu dit auzotar batek. Guardia zibilen nondik norako ibilbideak jakinik, auzoan bizikleta zuten mutikoak inguruko bidegurutzak eta errepideak zaintzen ibili ohi ziren. Zaintzaileak... zainduak. Josemai Garin morrontzan aritu zen, eta ondo asko gogoratzen ditu urte haiek. "Eskolan Batxilergoa bukatu eta lanera 13 urterekin. Garia eta artoa ehotzera ekartzen ziaten baserritarrek, eta kantitatea kontrolatzeko, guardia zibilen bisitak ohikoak hituan. Asmarena landu behar, bisiten ondorioak kaltegarriak izan ez zitezen", dio irriz.

Teknologia modernoak mekanizazio aurrerakoiak ekarri zituen, eta ondorioz,

desagertu egin ziren errota. Bai ekologikoak zirela faktoria haiek. Errotarria higitzeko ibaietako ura hartu, gerora emari berberean isurtzeko, ur kantitate bera eta gardenena... Hainbat errekan edo ibai ertzetan suma daitezke batzuk erorkin bihurtuta; beste batzuk huntzez josita, isil eta mutu; eta beste batzuk, gaitzerdi, museoko pieza bilakatuta, Loiolako Igara errota, adibidez. Idatzietan azaltzen den Gipuzkoako lehen errota Berastegikoa da, 1.141 ekoa, eta Eusko Ikaskuntzak dio XIX. mendean 661 errota zeudela erroldatuta.

"Errota zahar maitea, uraren ertzean / uraren ertzean da, basati beltzean. / Negar egiten dezu, alea xehetzean / ni ere triste nabil, zutaz oroitzean". ■■■

HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

Matrikula

Kontrakoa uste baduzu ere, kirol kazetariok, tarteka, lan pittin bat ematen diogu geure buruari. Beti izaten da askatu beharreko korapiloren bat. Eta askotan, korapiloa askatzen hasi eta mataza askaezin bihurtzen dugu. Arazo dugu aspaldian nor den euskal herritarra eta nor ez bereiztea. Denok mundutar izanik, EUS matrikula jartzen hastean, komeriak. Adibidez, Marokon jaio eta azken urteetan Bilbon bizi den euskal talde bateko kidea euskal herritarra al da? Nik baietz esango nuke. Baina Bilbotik Santanderrera joaten bada bizitzera, galdu egiten al du euskal herritar izaera? Euskal herritartasuna *per sekula seculorum* al da? Bilbon gustura bizi arren, marokoa dela esaten badu, guk zer esan behar dugu?

Kontu oso serioa da. Ni, Urbieta, jaiotzez azpeitiarra naiz; ama errezildarra dudanez, nazioarteko legediari esker, akerra ere banaiz. Aspaldian Zarautzen pasatzen ditut udak; beraz, litekeena da pare bat hilabetez txaparrotarra izatea. Baina demagun bizitzak alboko herrira eramaten nauela. Kolpetik xakela nintzateke, ala xapo-xakel hibridoa? Pentsatze hutsarekin, izerdi hotza.

Legediak legedia, norbera sentitzen den leku horretakoa da. Eta bizitza duina izateko aukera dugun leku horretako mundutarrak gara denok.

P. D.: Azken boladan akerraren odolaren deia sentitzen dut. ■■■



"Ikerketa prozesuan une gogorrak izaten dira, baina baita ederrak ere"

ESTELA LAPEIRA IKERLARIA ETA IRAKASLEA

Hainbat urtez ikasten eta ikertzen aritu ostean, gaur egun fluidoetan doktorea da Estela Lapeira. Fluidomekanika arloan ikertzen jarraitzen du, eta irakaslea ere bada ingeniari-tza biomedikoko gradu-
an. Ibilbideaz, lanaz eta erronkez aritu da.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Mondragon Unibertsitatea eta utzitakoak**.

Oraindik gaztea izanagatik, formakuntza eta titulazio aipagarri-dun ibilbidea du Estela Lapeirak (Azpeitia, 1990). Betidanik gustatu izan zaio marraztea eta diseinatzea, eta horrek animatu zuen Industria Ingeniari-tza gradua egitera.

Hainbat urtez ikasten eta ikertzen aritu ostean, fluidoetan doktorea da gaur-gaurkoz. Hain zuzen, ingeniari-tza biomediko eta fluido mekanika arloetan dihardu lanean Mondragon Unibertsitatean, irakaskuntzan zein ikerketan. Hastapenez, egin zuen tesiaz, ingeniari-tzaz eta zientziaz solastu da, besteak beste, patxadaz.

Zer dela-eta erabaki zenuen Industria Diseinu-ko Ingeniari-tza ikastea?

Batxilergoan nintzela, arreta piztu zidan marrazketa teknikoak. Ikasgai teknikoak atsegin nituen gehien, eta asko gustatzen zitzaidan dekorazioaren arloa, baita marraztea eta diseinatzea ere. Industria Diseinu-ko Ingeniari-tza graduaren berri izan nuen eta interesgarria iruditu zitzaidan, eta unibertsitateko ate irekietara joatea erabaki nuen. Hara joan eta zertan datzan ikusi nuenean, ikastera animatu nintzen.

Beste hainbat gradurekin alderatuta, ingeniari-tza ikasketak konplexuak direla diote. Unibertsitate garaiko zer oroitzapen dituzu? Zaila izan al zen prozesua?

Hasieran, egoera beti behar da berrira egokitzeko denbora. Gaur egun irakaslea naiz, eta ikasleak erabat ulertzen ditut beren kezka-
k zein diren ikustean; izan ere, ingurura eta ikasgaietara egokitzeko denbora behar da. Ingeniari-tzak zorrotasuna eskatzen du, baina ez askoz gehiago. Hau da, denbora eskaini behar zaio, saiatu egin behar duzu, baina beste gauza askotan bezalaxe. Gradua gogorra izanagatik, unibertsitate garaiko oroitzapen txarrik ez dut.

Graduko ikasketak amaituta, ikasten eta aztertzen jarraitu zenuen. Zer arlotan espezializatu zinen? Eta zergatik?

Gradua amaitzen ari nintzela, beste arloren batean trebatzeko grina piztu zitzaidan; diseinuaren arlotik pixka bat aldentzen zen zerbait probatzekoa, alegia. Hori dela eta, Mondragon Unibertsitatean Industria masterra egitea erabaki nuen. Arrasateko [Gipuzkoa] biomekanikako laborategian garatu nuen proiektua. Ikasketak tarteko, Alemaniara ere joan





nintzen, eta hura bai izan zela erronka. Urte erdiz egon nintzen hango laborategietan, eta oso esperientzia polita izan zen.


Jarraian, erronka potolo bati ekin zenion: doktore tesiari. Zure hitzetan, "hainbat irri, negar eta esperientzia berriren ondoren" egin zenuen urratsa.

Hala da, bai. Mondragon Unibertsitatean bada ZTIMULab izeneko proiektu bat, gazteak zientziaren mundura hurbiltzea helburu duena. Bertan hainbat emakumek parte hartzen dugu, gazteek ere ikus dezaten zientzia ez dela gizonezkoen mundua. Proiektu horretan parte hartzen dugunoi gure buruaren deskribapen labur bat egiteko eskatu ziguten, eta orduan aipatu nuen irrien, negarren eta esperientzia berrien esaldi hori; izan ere, dena ez da erraza. Nik, adibidez, gauza asko ez nituen aurreneko saiakeran asmatu. Ikerketa prozesuan une gogorak izaten dira, baina baita ederrak ere.

Beraz, zaila izan zen doktoregoa lortu arteko ibilbidea, ezta? Nor izan zenuen bidelagun?

Mondragon Unibertsitateko biomekanikako laborategian masterreko proiektua egin ostean, zuzendariak tesia egitera animatu ninduen. Proposamena entzun ostean, pentsatzen hasi nintzen, hausnartzen. "Asko gustatzen zait egiten dudana, eta horretan espezializatzen jarraitzeko aukera dut", pentsatu nuen neure baitan. Gainera, jendearekin harreman oso ona nuen, animatu egin nintzen. Hiru urte eman nituen tesia garatzen, eta entsegu ugari egiten nituen; batzuk ondo ateratzen ziren, besteak ez. Beti izan naiz burugogorra, eta behin eta berriz saiatu ostean lortu nituen emaitzak. Lankideak, irakasleak, tutoreak nahiz tesia egiten ari ziren gainerako kideak primerako bidelagunak izan ziren. Bakoitzak bere proiektuak zituen, baina laborategian ordu asko egiten genituen elkarrekin, eta ezinbesteko babesa izan ziren.

Prozesu horretan, jendeak galdetzen zidan hainbeste urteren ostean ikasten jarraitzen al nuen. Eta hala da, modu batera edo bestera ikasten jarraitzen duzu tesia egin bitartean, baina



"HIRU URTE EMAN NITUEN TESIA GARATZEN, ETA ENTSEGU UGARI EGIN BEHAR IZAN NITUEN"

"NAHASKETA DESBERDINAK KARAKTERIZATU ETA HORIEN PROPIETATEAK NEURTZEN DITUGU"

"SUBSTANTZIEN JARRERA ULERTZEKO GAI BAGARA, HORIEK BANATZEKO GAI IZANGO GARA"

"TEKNOLOGIA BERRIAK GARATZEKO OSO GARRANTZITSUA DA IKERKETA ZIENTIFIKOA"

lana ere bada. Nik, behintzat, lan gisa ikusten nuen ikerketa. Hala ere, ingurukoei azalpenak ematea ez zen erraza izaten.

Hauxe da tesiaren izenburua: *Análisis de los fenómenos de transporte en mezclas multicomponentes en condiciones terrestres mediante técnicas convectivas y no convectivas*. Arlo horretan jakintzarik ez duenarentzat ez da ulerterraza izenburua bera ere. Zer da, zehazki, tesian landu zenuena?

Substantzia edo fluido desberdinak nahastean, horiei zer gertatzen zaien aztertu nuen. Esaterako, tenperaturaren arabera, substantziak mugitu egiten dira. Ikusten ez diren gauzak dira, baina neurtu daitezkeenak. Nahasketa desberdin ugari egin genituen, eta horietako bakoitzak ondorio propio bat zuen. Hainbat nahasketa bitarren eta hirutarren Soret, termodifusio eta difusio garraio propietateak neurtu genituen. Horiekin batera, zenbait propietate termofisiko nahiz optiko ere bai.

Eta eguneroko bizitzan, zertarako baliatzen da hori?

Substantzien jarrera ulertzeko gai baldin bagara, gai izango gara substantziak banatzeko, eta hori hainbat arlotarako izan daiteke baliagarria, hala nola osasungintzarako. Demagun pertsona batek minbizia duela, eta haren odolean zenbat zelula txar dauden jakin nahi dugula. Nola egiten da hori? Zelulak banatuta. Zelula horiek zenbatuta jakin daiteke zer-nolako tratamendua egin daitekeen minbizia aurre egiteko. Kasu horretan, banatzeko gaitasunean dago zientzia. Dena den, hori adibide soil bat da, oso aplikazio zehatza duena; nik landutakoa oinarritzakoagoa da.

Sektore horretan lanean aritzen zaretenon arteko lankidetzarik ba al dago?

Bai. Guk, esaterako, guztira 26 nahasketa bitar aztertu genituen Alemaniako eta Belgikako unibertsitate batzuetako ikertzaile taldeekin elkarlanean. Mondragon Unibertsitatean hainbat teknika ditugu. Teknika esaten dudanean, Arrasaten bertan diseinatutako eta garatutako dispositiboek ari naiz. Izan ere, ingeniarietza eskola bat da, eta badugu gaitasuna diseinatzeko eta eraikitzeko. Unibertsitate bakoitzak bere teknika propioak garatzen eta eraikitzen ditu, baina ikerketarako garaian lankidetzak dago.

Egin zenuen lanak fruituak eman zituen, eta Cum Laude aitortzarekin amaitu zenuen bizitzako etapa hori. Merezi izan zuela uste al duzu?

Tesia egin arteko hiru urteak oso intentsuak izan ziren, eta gaur egun horretan ari den edonork arrazoi dudala esango du. Hala ere, gaur-gaurkoz,

doktoregoa egin ala ez zalantzan dagoen edonor animatuko nuke pausoa ematera. Gainera, ziur nago: berriro aukera izango banu, egin egingo nuke. Ikasleak sarritan etorri zaizkit gomendio eskean, zalantza ugari izaten baitituzte. Beti gauza bera esaten diet: gustuko gaia baldin bada, aurrera.

Gaur egun ingeniaritza biomediko eta fluido mekanika arloetan irakasle eta ikerlari zara. Zertan datza ingeniaritza biomedikoa?

Ingeniaritza biomedikoa osasun arlora bideratutako ingeniaritza da. Askotan ez gara ohartzen, baina medikuarenera joaten garenean edo osasunari lotutako edozein proba egiten digutenean, funtsezkoak diren gailuak eta tresnak erabiltzen dituzte: ekografia egiteko ekografoa, erradiografiarako makinak, tuboak, kateterrak... Eta nork diseinatzen ditu horiek guztiak? Finean, ingeniariak. Baina ez ingeniariak bakarrik. Ingeniaritza biomedikoak horregatik lantzen ditu diziplina ugari. Esaterako, erreabilitaziorako gailuak egiteko, ezinbestekoa da gorputzeko atal bakoitza ezagutzea eta hezur edo gihar bakoitza non dagoen jakitea. Hori dela eta, ingeniari biomedikoak denetarik pixka bat jakin behar du: ingeniaritza, kimika, anatomia, telekomunikazioak...

Zein da zure egitekoa?

Ikerketaren arloan, fluidomekanika alorrean aritzen naiz. Nire lana da fluido edota nahasketa desberdinak karakterizatzea eta horien propietateak neurtzea. Era berean, zenbakizko simulazioak egiten ditugu, gailu mikrofluidikoen diseinu egokiak topatzeko edota optimizatzeko.

Gazte-gaztetatik zenuen irakaskuntzarako zaletasuna. Orain irakaslea zara. Gustuko lana al duzu?

Betidanik gustatu izan zait irakaskuntzaren arloa, baita umeak ere. Irudika nezakeen nire burua haur txikien irakasle lanetan, baina baita helduen irakasle izaten ere. Nik dakidana besteei irakastea eta besteekin elkarbanatzea polita dela pentsatu izan dut beti. 2017an bukatu nuen tesia, eta 2016rako hasita nengoen irakasle lanetan; gustura ari naiz. Gainera, ikasleek lantzen dutena ulertzen dutela ikusteak asko betetzen nau.

Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna izan berri da. Emakumea eta zientzia, askotan jarri izan da mahai gainean gai hori. Ba al da genero berdintasunik zientzia arloan?

Unibertsitatean, nik lan egiten dudan arloan, zortzi pertsona aritzen gara, eta horietatik sei emakumeak gara. Egongo dira gizonezkoak bakarrik lan egiten



duten lekuak, baina nik ez dut desberdintasunik nabaritzen nire lan eremuan. Dena den, horrekin ez du ezer orokortu nahi. Hala ere, esango nuke geroz eta berdintasun gehiago dagoela zientziaren arloan ere; hala izan dadin eskatzen dute, gainera. Hau da, proiektuak eskatzerakoan eta ematerakoan erakundeek zein enpresek kontuan hartzen dute genero berdintasuna zein emakumeen presentzia. **Oro har, jende askok oso urrun sentitzen du zientziaren arloa, zerbait konplexua eta ulergaitza izango dela pentsatuta. Zergatik dela uste duzu?**

Txiki-txikitatik irakasten digute, nahita edo nahi gabe, matematiketan ondo moldatzen dena bizkorragoa dela. Baina hori ez da horrela, bakoitzak bere zaletasunak eta gustuak ditu. Zientziek saiatzea eskatzen dute, baina gustatuz



gero, ez lukete beldurrik eman behar. Batxilergoan zientziaren arloa benetan zer den irakatsi izan baligute, askotariko zientzialariak zertan aritzen diren esan izan baligute, pertsonen esperientziak entzun izan bagenu... beste modu batera irudikatuko genuke lan esparru hori. Izan ere, gaur egun errazagoa da suhiltzaile baten edo irakasle baten lana idealizatzea, zientzialari batena baino, esaterako. Denoi kontatu digute zer lan egiten duten suhiltzaileek eta irakasleek, baina inoiz ez digute azaldu zer lan egiten dituen algak ikertzen dituen ikerlari batek. Zenbat eta esperientzia gehiagoren berri eman, hobe. Hala ere, egia da ingeniarietza mundua ez dela azaltzeko erraza, eta gauza bera ikasi duten bi zientzialarik lan oso desberdinak egin ditzaketela. Hala ere,

ezin dezakegu jakin lanbide bat zertan datzan horretan aritu arte. Dena den, adibideak ematea ona dela uste dut, eta txikiak edo gazteak garenean ez zaizkigu behar beste ematen.

Zergatik da garrantzitsua ikerketa zientifikoa?

Gizartea garatzen ari da etengabe; teknologia berriak ditugu, eta horiei esker, hobeto bizi gara. Halakoak garatzeko oso garrantzitsua da ikerketa zientifikoa.

Aurrera begira, zer erronka dituzu?

Ikasten eta ikertzen jarraitzea da nire asmoa. Izan ere, hori du zientziak: behin zerbait ikasita eta frogatuta, horretan nahiz ideia berrietan sakontzeko grina pizten du. Gainera, gauza berriak probatuz eta besteek egiten duten lana ikusiz, ikaragarri ikasten da. ■■■



Erditu dute sarea

Plax! sexu aholkularitza zerbitzuak gidatutako 'Erditu ondoren, zer?' egitasmoak batu ditu ama izan berri diren bederatzi emakume. Beren bizipenetatik abiatuta, haurdunaldiak, erditzeak nahiz haren ondorenak utzitako aldartea aztertu eta landu dute; barrura begira jarri dira, bizitakoa kanpora ateratzeko. Luze hitz egin dute gauzatu duten bideaz.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Norbere gudu zelaia zabaltzeko beharraz jabetuta, ama izan berri diren bederatzi emakumek barrenak askatzeko eta errealitate berrian kokatzeko lanketa partekatua egin dute. Hain zuzen ere, Plax! sexu eta bikote aholkularitza zerbitzuak abenduan jarri zuen martxan Erditu ondoren, zer? izeneko egitasmoa. Bederatzi emakume, bederatzi bidelagun elkartu dira saioetan, eta bidearen bukaera izan daitekeenera iristear diren honetan, hilabeteotan egindako bidez gogoeta egin dute Ane Espillak (Etxebarria, Bizkaia, 1981), Oihane Etxanizek (Azpeitia, 1987) eta Haizea Eigurenek (Azpeitia, 1984).

Nahita edo nahi gabe, baina errealitatearen alde bakar bat erakusteko joera ohikoa da. Askotariko gaien bueltan ikus daiteke hori, baita amatasunari lotuta ere. Izan ere, erditu ostean, ama izatearen alde politez baino ez da hitz egiten, oro har, eta sarri ezkutatu egiten da beste aldea, hain polita ez den aldea. Hain zuzen ere, erditu osteko bizipenez hitz egiteko beharra sumatuta joan ziren hirurak Emakumeen Txokoko saioetara. Eta luze errepasatu dute duda handirik egin gabe hasi zuten bideak eman diena. Izan ere, "izugarria" izan da bizi izan dutena.

"Bakoitza beretik ari ginen erditze ondorena bizitzen, baina egoteko beharra genuela sumatzen genuen", azaldu du Eigurenek. Haren arabera, halako dinamika bat martxan jartzeko "izugarrizko beharra" zegoen. "Lehen saioan, hitz egitea baimendu zenean, tripetatik atera zen han esandako guztia. Oilo ipurdia jartzen zait gogoratze hutsarekin; oso indartsua izan zen". Hark esan duenez, ama rol "etengabea" sartuta egoteak, bizitzaren beste esparru askotan mundu gerra bat bizitzen ari bailiran sentitu dute ama izatea. "Mundu gerra batean zer egiten da? Dagoenari heldu eta biziraun. Hori, baina, hasieran egiten duzu, gero berregituratu egin behar dituzu kolokan jarritako arlo guztiak: harremanak, lana, lagunak, sexualitatea...".

Lehen saioak barruak husteko baliatu bazituzten ere, hainbat lanketa egin dituzte hurrengoetan. Dauden tokitik nora iritsi nahi duten landu dute bidean. "Guretzako tokia izan da, eta saiatu gara umeei buruz ez hitz egiten. 'Nola gaude?', 'zer behar dugu?', galderei erantzuten saiatu gara", azaldu du Espillak. Sortu duten taldea "eraikitzeko lekua" izan dela dio Etxanizek: "Beharrei maila kolektiboan erantzun nahi izan diegu, eta lan politikoa ere egin dugu; izan ere, tabua den gai bat jorratu dugu".

Eroso sentitzea

Haurdun geratutako unetik "mila gauza" sentitzen hasten da emakumea Espillaren esanetan. "Horri ahotsa ematea, pertsona batzuen aurrean aske eta epaitu gabe sentitzea, esango duzun hori



ondo hartuko dutela jakitea eta zure inguruan daudenek antzeko gauzak sentitu dituztela ikustea izugarria da".

"Bakardadeari izaera kolektiboa ematea ikaragarria izan da", Espillaren ustez. Etxanizek ere ildo beretik hitz egin du: "Denok bizi duguna antzekoa da, eta ez dago egoera horren aurrean isilik egon beharrik, nahiz eta askotan hala egiten dugun. Gertatzen zitzaidana partekatze beharra sentitzen nuen nik; izan ere, isilik geratuta ez diogu egiten mesederik ez elkarri, ez sistemari eta ez gizarteari". Hark uste du "hautsi" egin behar dela amatasunaz ez hitz egiteko dagoen joera.

Dena den, hirurek argi dute amatasunak batzuei eta besteei ez diela modu berean eragiten, eta eragin dienen artean kokatzen dute beren burua. Garbi du Etxanizek: "Oraindik ere entzun egiten da: 'Zer uste zenuen ba, zer zela ama izatea?'. Eta gaur egun hori entzutea gogorra egiten zait. Ama izatea badakigu zer den, baina beste gauza bat da norbere azalean bizitzea eta bizimodua hankaz gora jarri zaizula ikustea". Hain gordin, hain barrutik.

Taldea eraikitzen hasi orduko "eroso" sentitzeko zer behar zuten idatziz jaso zuten parte hartzaileek. Hala azaldu du Espillak. "Epaitua ez sentitzea, konfidentzialtasuna, askatasuna, goxotasuna... Muga

horiek jarrita eroso sentitu gara, eta oinarri horietatik abiatuta egin dugu lanketa". Eigurenen arabera, "magia" sortu da taldean, bakoitzak erakutsitako konpromisoari eta ardurari esker. Taldeko kideak "errealitatea islatzen ari zirenez, elkarren erreferente" izan direla azaldu du Espillak. "Saltzen diguten hori ez da errealitatea. Norberak bizi duena da errealitatea, baina jendeak ez du errealitate horretatik askatzeko aukerarik".

Eigurenek azaldu duenez, ama erreferenteak falta dira, ama izatea boteretik aldarrikatzen duten emakumeak. "Baina aldarrikatzen duen ama eredu hori ez da zurruna, itxia eta infantila, merkatuak nahi duen bezalakoa". Haurdunaldiak eta amatasunak "kolore asko" dituela eta denak direla "zilegi" aldarrikatu du Espillak. "Horrek ez du esan nahi umea gehiago edo gutxiago maite duzunik. Kontua ez da hori; kontua da gu zenbat aldatu garen jabetzea, barrura begira jartzea, eta horrek ez du umearekiko maitasunarekin zerikusirik".

Autoexijentzia ere bai

Epaitua izatean jarri du arreta Etxanizek, hark dioenez, barrukoa kanpora epairik gabe atera behar litzatekeelako. "Epaiekin amaitu egin behar da. Izan ere, zenbat aldiz entzuten dugu 'umea ez ezazu gehiegi hartu besoetan, gaizki ohituko duzu eta' edo 'ez iezaiozu hainbeste titi eman...?'. Ama izan zara, hankaz gora zaude fisikoki nahiz emozionalki, eta auskalo nola hormonalki, eta halakoak entzuten dituzu etengabe. Horrek sua pizteko baino ez du balio".

Epaien kontua exijentziarekin lotu du Eigurenek. Izan ere, haren ustez, elkarrekin doaz bata eta bestea. "Ama onaren figura exijentziarekin dago lotuta. Haurrak ondo jantzita egon behar du, mukirik gabe, hotzik ez du pasatu behar, eta zuk titiak bere lekuan eduki behar dituzu, lorik egin gabe lanera joan behar duzu, nolabait haurra jaio aurretik egiten zenuena egiten jarraitu behar duzu; baina ezinezkoa da. Dena oso exijentea da, eta berdin dio: egiten duzuna egiten duzula, beti entzungo duzu zerbait". Autoexijentziaz jabetzeak ere lagun dezake urratsak egiten. "Zenbat aldiz pentsatzen dugu: 'Zergatik daude besteak horrela eta ni ez?', galdetu du Etxanizek.

Horregatik, Eigurenek uste du norbera birkokatzea dela gakoa; alegia, exijentziak harrapatuta egotea edo horretaz jabetzea eta horri aurre egitea. "Exijentzia leundu dezakegu, eta horretarako urratsak eman. Adibidez, 'nik zer behar dut?', galdetu behar diogu gure buruari. Eta horretarako zer egin dezaket? Zu birkokatzen hasten bazara, besteek ere hala egin beharko dute, eta horrela norbanakotik kolektiborako jauzia egiten dugu". Horrekin bat egin du Espillak. "Zenbat jende dugun inguruan, eta zeinen bakarrik sentitzen garen askotan; jendez inguratuta egon eta bakarrik sentitu".

Emakumea eta ama

Ama ez ezik, emakume ere badira Espilla, Etxaniz eta Eiguren, eta hain zuzen ere, horretan jarri dute arreta. Izan ere, Emakumeen Txokoan gauzatu duten tailerrean horixe aldarrikatu dute. "Ez dugu landu umeari titia nola eman edo fardelak nola aldatu. Gudan zentratu gara, ama izan den emakume horretan", azaldu du Espillak. Horrekin lotuta, zaintzan jarri du azpimarra Eigurenek. "Zaintzaileak baldin bagara, guk ere zainduak izan behar dugu. Ispilu moduko

**"SALTZEN DIGUTEN
HORI EZ DA
ERREALITATEA;
NORBERAK BIZI DUENA
DA ERREALITATEA"**

**"EPAIEKIN AMAITU
EGIN BEHAR DA,
HORIEK SUA PIZTEKO
BAINO EZ BAITUTE
BALIO"**

**"DENA OSO EXIJENTEA
DA: EGITEN DUZUNA
EGITEN DUZULA, BETI
ENTZUNGO DUZU
ZERBAIT"**



Taldea osatu duten emakumeak otsailean egin zuten saioan.

zerbait da, beraz: zaintzeko, zaindu egin behar dut. Eta hori kolektibizatu egin behar genuke, ahizpatasunak beste indar bat duelako, horretan ere".

Amatasuna idealizatuta dagoela uste dute hiru emakumeek, eta ideia hori deseraiki eta ideia horri ahotsa jartzeko balio izan die tailerrak. Ideia horri tiraka, harago joan da Egiguren. "Ama izatea nahi izateari buruz ez da hitz egiten. Baina nola bizi dugu aludunok hori? Izugarritzko pisua eta presioa da. Gauza horiek planteatzen al ditugu? Gizarteak nolako emakumeak nahi gaitu adin batetik aurrera? Nolako amak? Dena lotuta dago: ama onaren eredua merkatuaren logikan dago eraikita; sistemari amak bakartuta eta isilduta egotea komeni zaio. Gure esku dago horretaz hitz egitea, hausnartzea eta erabakitzea, baita komunitatean gure ahotsa entzunaraztea ere".

Gaia kolektibizatzea, gaiari tokia egitea, "zirikitua egitea" beharrezkoa dela uste du Egigurenek. "Dagoen horri zirikitua egiten ari gara, pitzadura bat". Espillak dioenez, tailerra gauzatu izan ez balute ere, "biziraungo" zuketena, "dudarik gabe", baina gaia kolektibizatzeak eman dienarentzat ez du hitzik bizkaitarrak. "Orain heldu garen puntura ez ginatekeen iritsiko, ez bagenu profesionalen batengana jo izan behintzat".

"Indarra" eman die egindako bideak. "Ilusioa, desberdin ez sentitzea, bat gehiago naizela sinestea... eragin dit tailerrak. Saioak hasi aurretik ez nintzen gai gertatzen zitzaidanari izena jartzeko, ez nekien zer zen gertatzen zitzaidana, baina bat gehiago naizela jabetu naiz", adierazi du Espillak. Hala uste du Etxanizek ere: "Normalizazio prozesua izan da, gauzak aldatzeko beharra sumatzen nuelako".

Gai tabuak

Amatasuna gai tabua da, baita harekin lotura duten beste batzuk ere, hala nola sexualitatea. Eta hain justu, Plax!-ek gidatutako saioak izanik, sexualitateak ere hartu du bere lekua. Egigurenek azaldu duenez, ama izan ostean eraikitako sexualitatea edo horren barruko erotismoa birproposatzen saiatu dira. "Ama izan aurretik gauza batek berotzen ninduen agian, eta orain beste batek. Zergatik? Beharrak aldatu egin



direlako, egoera ere bai, baita bizimodua eta erdigunea ere. Hori dela eta, berrantolatu egin behar da guztia, eta horretarako tratu onetan oinarritzea da gakoa".

Etzanizek ere bat egin du Eigurenekin, ama izan ostean erotismoa eta sexualitatea landu egin behar direla uste duelako. "Ama eta aita izan ondoren, lorik egin gabe bazaudete, ia jan gabe, nekatuta, erreta... nola sentituko duzue, bada, lehengo gauza bera?". Eigurenen aburuz, "berregokitzea" da gakoa. Izan ere, "kulpa" agertzen da halakoetan. "Kulpa komuneko zulotik bota behar da, ez digu ezertarako balio".

Horrekin lotuta, ama izan aurreko bizitzarekiko dolua aipatu du Eigurenek. "Bakoitzak bere moduan bizi du, baina gerra bat da, bai ala bai, eta halako egoeretatik inor ez da ateratzen zipriztindu gabe". Gerra horren iraupena izan du hizpide Espillak. "Baten gerrak iraun dezake hiru hilabete, beste batenak hamalau eta beste batenak hogeia. Baina ama izan zara eta hori betirako da, eta gerra hori pasatzean jabetuko zara, agian, lehen orain baino zoriontsuago zinela. Eta zergatik ez? Horrek ez du ezer esan nahi, ez du esan nahi umea ez duzunik zainduko; horrek ez dauka umearekin zerikusirik, gurekin baizik. Lehen genuen bizimoduarekin eta poztasunarekin eta orain sentitzen dugun kezcarekin, motxilarekin edo ardurarekin du lotura". Gai hori gizartera eraman behar dela uste du Eigurenek. "Horrela bizi dugu, kaxa batean sartzen gaituztelako. Baina gerra hori izan izango denez, saiatu behar dugu zirrikituak bilatzen eta ahalik eta arinen pasatzen. Gure zaintzan dago gakoa, eta patxada, umorea eta arintasuna bidelagun onak dira".

Espillak argi du: "Emakume handi, eder eta boteretsu izateko ilusioa pizteko balio izan dit tailerrak. Erlatibizatzeke ere bai, buruarekin ahazteko eta praktikan gorputzarekin konektatzeko, exijentziak jaitzita eta elkar goxatuta". Aitortza izan dela azaldu du Eigurenek. "Egiten ari zaren lanari aitortza ere izan da; izan ere, ama izan eta ideiarik ez duzula sentitzen duzu hasieran. Eta norbaitek ondo ari zarela esatea... Ahalik eta ondoen egiten ari zarenean hori entzutea izugarria da". Etzanizek, berriz, Eigurenek hari esana ekarri du gogora. "Hasiera hartan, hala moduz nengoenean, hala esaten zidan beti: 'Egiten



duzuna egiten duzula, ondo dago'. Eta hori beste ama batengandik entzutea sekulakoa da".

Ama izan diren edo izango diren emakumeei ere zuzendu dira hirurak. "Sentitzen dutena sentitzen dutela, izan ezberdin edo arraro, ama txar ez sentitzeko esan nahi genieke, gauza batek ez baitu bestearekin zerikusirik. Sentimendu horiek guztiak azaleratu eta loratu egin behar ditugu, eta horretarako bidea izan daiteke barruan duguna norbaitekin, inguruarekin elkarbanatzea. Hau guztia normalizatu egin behar dugu". ■



ARDO-ZALEAK ELKARTEAN

BAZKIDE BERRI BILA GABILTZA

Idatzi helbide honetara: ardozealeak1980@gmail.com

GUKA



**MEMORIA,
DUINTASUNA,
ERREPARAZIOA**



Euskararen plaza gara,
herriaren irudia eta
komunitatearen ahotsa



**HEDABIDEEKIN
ERE BAI**

HITZAK BAINO GEHIAGO



JUAN LUIS ROMATET

Herri bedeinkatu edo madarikatu honetako familia askok bezala –bakoitzak erabaki dezala nola kategorizatu ditxosozko herri hau–, gure sendiak ere sufritu behar izan ditu 1936ko gerraren ondorioak: aitona bat, amaren aita, gudarria izan zen; aitaren ama, gure amama, alabak eskutik hartuta zituela kanporatu zuten herritik 1937ko otsailean, orduko agintariak Zumaiako ehunka lagun haien jaioterritik, haien etxetik, haien familiartetik aldentzea erabaki zutelako; eta beste aitona, aldiz, burdinbidean egiten zuen lan, eta hura ere errepresaliatu egin zuten frankistek. Ai, zer den gerrako galtzaileen bandoan egotea.

Guda hark gure familian izandako eraginaz gutxi hitz egin dugu etxean. Amak oso noizean behin aipatzen zuen bere aitak gerran borroka egin zuela. Amamak eta izebek pasatu behar izan zuten gurutze bidearen inguruko informazio gehiago izan genuen kanporatzeen 80. urteurrenarekin

batera Zumaian egindako omenaldiari esker. Urtebete lehenago, 2016an, trenbideetako langileak omendu zituen Gipuzkoako Aldundiak, eta une hartan jakin genuen –nire kasuan, behintzat, hala izan zen– frankisten garbiketa prozesua jasan zuela gure aitona, beste ehundik gora langilerekin batera. Frankismoaren zorigaiztoko aro ilun, krudel eta odoltsuan izan ziren sarraskiekin eta tragediekin alderatuta, txikikeria izango da gure familiarik gerla hartan pasatutakoa.

Beste etxe batzuetan, garai beltz hartan bizitako gertaerek sortzen zieten minagatik, beldurragatik edo beste arrazoi batzuegatik mantendu dituzte isilik, barrenean gordeta, azaleratu gabe. Sendatzen ez diren zauriek gangrenatzeko arriskua dute, eta halako dezentente gertatuko ziren. Zenbat gizon eta emakume zenduko ziren beren gurasoen nondik norakoak jakin gabe? Zenbatek jasan behar izango zuten irabazleen krudelkeria 'okerreko aldean' borrokatu zutelako? Zer pentsatuko ote dute gerran desagertutako gudarien, mili-

zianoen edo soldaduen seme-alabek, politikariren bat, ustez ironikoki, "hemen datoz aitona kontuekin" bat esaten entzuten dutenean? Erreparazio eskaera horiekin "zauriak zabaltzera" datozela irakurtzean, zer pasatuko ote da hobi komun batean lurperatuta dagoen pertsona baten bilobaren burutik? Zer Espainiako Gobernuak presidente batek, harro-harro, memoria historikorako ez duela sosik bideratuko dioenean? Zer diktadorearen jarraitzaileak berriro parlamentuetan ikusten dituztenean, gainera, aginte postuetatik gero eta hurbilago?

Memoriarik gabe ez dago herririk, eta, zorionez, herriaren eta herria osatzen duten guztien memoria berreskuratzeko lan asko egin da azken hamarkadetan. Zer gertatu zen jakin behar dugulako. Asko zendu dira dagoeneko, baina haien oinordekoak hor daude oraindik, eta erantzun eske jarraitzen dute; erreparazioa zor zaie. Horregatik bakarrik lanean jarraitu behar da. Memoria eta duintasuna ez direlako hitz hutsalak. ■

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria: Onintza Lete Arrieta

Tirada: 7.750 ale



Enpresa laguntzaileak:



DANOBATGROUP



AITONARI ATSEDENA EMATEKO BORROKA

1936ko gerrak eragindako zauri batzuk sendatu gabe jarraitzen dute guda amaitu eta zortzi hamarkada geroago. Gerlan desagertutakoen kasua da horietako bat. Oraindik ere errepide bazterretan, izenik gabeko hobietan, edota bere burua goraipatzeko Franco diktadoreak eraikiarazi zuen Erorien Haranean daude gerra hartan parte hartu zuten askoren gorpuzkiak. Haien hezurak, haien memoria, berreskuratzeko prozesua abiatu dute familia batzuek.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta utzitakoak**

Espainiako Gerran borrokatu, eta atxilotu ondoren desagerrarazi zuten pertsonetako bat da Martin Hilario Intxaurren, besteak beste, Fermin eta Pilar Larrañaga Intxaurren anai-arreben aitona. Urte hauetan guztietan etxean sumatutako hutsuneak eta arnastutako saminak bultzatuta, aitonaren nondik norakoak ikertzen hasi ziren. Hamarkada luze batean aritu dira artxibategiak arakatzen, mila eta bat instantzia bidaltzen; kontaezinak dira egindako telefono deiak, autoz egindako kilometroak eta aitonaren memoria berreskuratzeko asmoz egindako gestioak. Denborarekin, esfortzuarekin, jakin dute non dagoen beren aitona. Haren gorpuzkiak berreskuratzea da eman nahi duten hurrengo pausoa.

Martin Hilario Intxaurren Danborenea 1896ko urtarrilaren 14an jaio zen Berastegiko (Gipuzkoa) Arbide baserrian. Dokumentuen arabera, zazpi anai-arreba ziren etxean; bost mutil eta bi neska. Landa eremuan ohikoa denez, are gehiago garai hartan, maiorazkoa gelditu zen baserriarekin, eta beste anai-arrebek kanpora joan behar izan zuten.

Baserri giroa utzi eta itsasertzera gerturatu zen Intxaurren, Pasaia (Gipuzkoa) hain zuzen ere. Jarduera ekonomiko sendoarekin borborka zegoen herria aurkitu zuen hark Pasaian. Izan ere, arrantza sektore indartsua izateaz gain, lurraldean ekoizten ziren produktuak hango portutik eramaten zituzten urruneko herrialdetara. Horrez gain, badiako ontzioletan eta bestelako enpresetan lan egiteko aukera ere handia zen.

Lana aurkitu bakarrik ez, familia ere bertan osatu zuen berastegiarrak. Pasai Donibaneko (Gipuzkoa) Constanza Otazo Makazagarekin ezkondu zen, eta lau ume izan zituen bikoteak: Jose, Dolores, Eugenio eta Martin. "Familia oparoa zen. Gure

aitona ausarta zen negozioetarako, eta amonak ere asko lagundu zion. Logelak eskaintzen eta bazkariak ematen zituzten hostal bat zuten, eta, horrez gain, aitonak kamioiak ere bazituen etxabe batean; zementua eta beste produktu batzuk garraiatzen zituen haietan. Arotza zen ofizioz, baina beste arlo batzuetan ere aritu zen", azaldu du Ferminek. Gainera, bikoteak Pasaiaiko familia dirudunekin harreman onak zituela ere ondorioztatu dute gauzatutako ikerketa lanari esker.

1936ko uztailaren 17an, Espainiako armadako militar batzuek Bigarren Errepublikako gobernuaren aurkako estatu kolpea jo zuten, eta horrek, nola ez, eragina izan zuen Pasaian, baita Intxaurrondo Otazo sendian ere. "Gerra piztu zen, eta gure aitonaren lagun haiek, interesengatik edo, Francoren alde jarri ziren. Gure aitona, berriz, beste aldekoa zen; aitona-amonak oso euskaldunak ziren, eta Francoren aurka zeuden", azaldu du Ferminek. Gerra hasita, faxisten kontra borrokatzera joan zen Intxaurrondo. "Amak esaten zigun gure aitona gudaria izan zela".

Gudarien eta errepublikazaleen defentsak lanak izan zituen Mola generalaren reketean erasoaldiari erantzuteko, eta azken horiek hurreratzen hasi zirenean, Bilbora erretiratu behar izan zuten. "Amona ere Bilbora joan zen umeekin, senarraren alboan egotera". Han "kristorenak eta bi" pasatu zituztela dio Ferminek. "Italiarrak eta alemanak hiria bonbardatzen hasi ziren, eta gure amak gogoan zuen sirena hotsak entzutean korrika joaten zirela babes bila". Egoerarik latzenean ere, duintasuna erakutsi zuen Otazok, Intxaurrondoren emazteak eta lau haurren amak. "Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatu behar izan zion, baina ez zuen dirurik eskatu; lau umeentzako arropa eskatu zuen, besterik ez", esan du Ferminek, hori egiaztatzen duen dokumentua erakutsiz.

Bilbon zela zauritu zuten Intxaurrondo. "Ez dakigu frontean edo hirian jazotako bonbardaketaren batean izan zen, baina gure



Pilar Larrañaga, ikerketan zehar aurkitutako dokumentuekin.



Constancia Otazo Makazaga

amak gogoan zuen bere aitak eskuetako behatzak alanbre bidez lotuta izan zituela". Zaurietatik erabat osatu gabe zegoela, berriro frontera eraman zuten. Handik aurrera ez zuten haren berri gehiago izan. "Gure amona, pobrezian egonagatik, senarrari zerbait bidali nahian ibili zen, baina ez zekien nora bidali. Halako batean, osaba Eugenio –Intxaurrendoren anaia– joan zitzairen aita preso zutela eta hil egin zela esanez. Ez zekiten non hil zen, baina bai atxilotuta eduki zuten lekuan hotz handia egiten zutela eta oso gaizki tratatu zutela", dio Ferminek.

Estigmatizazioa

Gerra amaituta, galtzaileen bandoko beste asko bezala, Frantziara eraman zituzten Otazo, haren aita eta lau umeak. Bigarren Mundu Gerra handik gutxira piztu zen, eta Alemaniako tropak ia trabarik gabe sartu ziren Frantzian. Herrialdea bitan banatu zuten: Alemaniaren menpe geratu zen zati bat, eta Vichyko kolaborazionisten esku bestea. Erbesteratutakoen amesgaiztoak ez zuen amaierarik, eta Frantzian zirela atxilotu egin zituzten, Espainiako Errepublikaren aldekoak zirelako. "Alemaniako kontzentrazio esparruetara zihoazela, herri edo hiri bakoitzean gelditu egiten zen trena, eta errepublikanoak, juduak, ijitoak, denak sartzen zituzten han; bagoiak gainezka zeuden, eta egin beharrekoak gainean egin behar izaten zituzten. Clermont-Ferrand hirira heldu zirenean, bagoiko ateak ireki zituztenean eta han zegoen jendetzaz ohartu zenean, aitarekin eta umeekin ihes egin zuen amonak". Frantzian noraezean ibili zirela azaldu du Ferminek, "muga zeharkatzea lortu eta Pasaia itzuli ziren arte".

Jaioterrira itzulitakoan bizi zuten egoera oso bestelakoa izan zen Otazo eta haren umeentzat; gerra aurretik familia oparoa zena, pobrea zen. "Pasaian dena konfiskatu zieten; aitonaren kamioiak frankisten esku zeudela zioen gure amak, baita haiek gordetzeko erabiltzen zuten lokala ere. Maila sozial egokidun familia hura estigmatizatuta zegoen herrian". Hala ere, egoera txarrenean pasaitar batzuen laguntza izan zutela esan izan zuen Ferminen eta Pilarren amak. "Arrantza ontziak portura iristen zirenean, legatzen bat edo beste arrainen bat ematen zieten. Arrantzale haiek artean gogoan zuten gure aitona zein zen".

Familia, ibilian-ibilian, Zumaia heldu zen. Fermin eta Pilarren ama Dolores neskame lanetan aritu zen leku askotan. "Getarian lanean zebilela, gure aita –Fermin Larrañaga Azpeitia– ezagutu zuen, eta ezkondu egin ziren. Hemen, Getarian jaio ginen gu", diote Pilarrek eta Ferminek.

Bizitzak aurrera egiten badu ere, ez da erraza, ez, bizitako une latzak ahaztea. Are zailagoa da Dolores Intxaurrendok bezala aita haur txikia zenean galduz gero. Hil bakarrik ez, desagerrarazi egin zuten. "Etxean beti izan dugu hutsune bat; amak tristura hori zeukan barrenean. Beti entzun izan diogu 'nire aitak ikusiko balu...' edo 'non da zuen aitona?'. Pasaia Udalera ere

"Ez zekiten non hil zen, baina bai atxilotuta eduki zuten lekuan hotz handia egiten zuela"

"Maila sozial egokidun familia hura estigmatizatuta zegoen herrian"

idatzi zuen, bere aitarekin zer gertatu zen jakin nahi zuela eta. Tristura hori, min handi hori, hil arte izan zuen berarekin". Iazko azaroaren 16an hil zen Dolores Intxaurren, 90 urterekin, aitaren gorpuzkiei Berastegin lur emate-rik lortu gabe.

Ikerketaren hasiera

"Beti aldarrikatu dut aitona den Intxaurren abizena. Esko- lan barre egiten zidaten Larraña- ga Intxaurren nintzela esaten nuenean. Urteak aurrera zihoa- zela ikusita, aitona arrastoa bilatzen hastea erabaki nuen". Hala hasi zuen Ferminek ikerketa.

Lehendabizi Aranzadi zientzia el-

kartera jo zuen laguntza eske. "Zer informazio nuen galdetu zidaten, eta esan nien 'hotz handia' egiten zuela aitona izan zuten lekuan. Batallón Larrañaga izeneko batailoia ere gogoan nuen. Euskal Herriko gudarien batailoiei begiratzen hasi ginen, bai EAJrenak, baita ANVkoenak ere, baina horietan ez zen bere izena agertzen". Bai, ordea, haren anaia Eugeniorena; *Lenago il* izeneko batailoian aritu zen, eta Ondarretako kartzelan egon zen preso. Eugenio izan zen aitona hil egin zela esatera etorri zitzaiguna".

Aranzadi ez zuen Intxaurrenaren informaziorik aurkitzen. "Artxibo asko oraindik berreskuratuta gabe zeudela eta Guadala- jarako artxibategiarekin harremanetan jartzeko esan zidaten". Guadalajarakora bakarrik ez, ordea, Avilako eta Salamancako artxiboetara ere deitu zuen Ferminek. "Kontzentrazio eremu- tako zerrendak ere arakatu nituen, eta ez nuen ezer aurkitu; gure aitona ez zela existitu zirudien".

Itxitako ate batean, baina, esperantzarako zirrikitu bat zabaldu zen. "Guadalajarako artxibora deitu nuen berriro, eta ordura arte hitz egin gabeko pertsona batekin izan nuen solasaldia; beste jarrera bat zuen hark, irekiagoa. Esan zidan milaka dokumentu zituztela klasifikatuta, baina beste milaka sailkatu gabe ere bai. Instantzia berriro bidaltzeko eskatu zidan, eta esan zidan hura jasotzean izango zuela bilaketarako denbora hartzeko justifikazioa. Hala egin nuen, eta astebetera jaso nuen erantzuna: 'zuen aito- na aurkitu dugu'. Izugarrizko poza sentitu nuen".

Dokumentuen arabera, Intxaurren Gijonen izan zuten preso, Asturiasko frentean. "Horrek pentsarazten dit gure aitona ez zela gudaria, milizianoa baizik. Nik dakidala, Euskal Herrian gerra galdu zutenean, Santanderrera eta Santoñara (Kantabria, Espai-



Martin Hilario Intxaurrenaren dokumentazioa.



Fermin Larrañaga Intxaurre.

nia) erretiratu ziren gudariak, eta han zirela, italiarren aurrean errenditu ziren. Gure aitona Gijonen egon zelako, milizianoa izango zela pentsatzen dugu".

Behin atxilotuta, San Pedro de Cardeñako (Burgos, Espainia) kontzentrazio eremura eraman zuten Intxaurre, eta handik Quintora (Zaragoza, Espainia), langileen bataloi batera, behar-tutako lanak egitera. "Gure aitona izena 1938ko eta 1939ko zerrendetan irakur daiteke; 1939ko iraileko zerrendan azaltzen da haren izena, baina ordurako urtebete zeraman hilda". Hilda egonagatik zerrenda hartan agertzeak badu azalpen bat, Ferminen ustez: "Ustelkeriagatik izango zela iruditzen zait. Bataloi horietan dirua jasotzen zuten pertsonako, eta horregatik mantenduko zuten haren izena zerrendan hainbeste denboran".

Hilik bai, baina non? Ingurune hartan hobi komunik izan ote zen begira hasi zen Fermin. "Quinto inguruan hobi komun bat izan zela jakin nuen, 159 gorpu lurperatu zituztela han, horietatik 140 identifikatu gabeak zirela, eta 1959. urtean lurpetik atera eta Erorien Haranera eraman zituztela guztiak". Hori jakinik, aitona aurkitzeko beste ate bat zabaldu zitzaion, baita berehala itxi ere. "Haranean milaka gorpuzkin zeudela esan zidaten; haietatik batzuk identifikatuta, baina beste hainbat identifikatu gabe. 'Ez dugu esaten zure aitona hezurak hemen ez daudenik, baizik eta gure artxiboetan ez dela bere izena agertzen. Hemen egonda ere, identifikatu gabeko beste guztiekin batera egon daiteke', idatzi zidaten. Aranzadiren ustez, horma batekin egin genuen topo, eta oso zail ikusten zuen handik aurrerako lana; ia ezinezkotzat jotzen zuten aitona aurkitzea. Ordurako sei bat urte neramatzan lanean, eta ezezko hark behea jota utzi ninduen. Anai-arrebei esan nien norbaitek lekukoa hartzea eskertuko nukeela".

Duintasuna

Pilarrek, Ferminen arrebak, jarraitu zuen lanarekin. Desagertuen inguruan irratan entzundako elkarrizketa batek bultzatuta, Irungo (Gipuzkoa) errepublikazaleen elkarte batekin jarri zen harremanetan. "Hango kide batek ikaragarri lagundu zidan. Bere osabaren arrastoen bila ibilia zen, eta hark Espainiako Gobernuko Memoria Demokratikoko eta Patrimonioko erakundeetara bidalitako gutunak erakutsi zizkidan, nik horiek gure aitona buruzko eskaria egiteko egokitu eta erabiltzeko".

Madrilatik albiste onik jasotzen ez zuela ikusita, eta aitona Zaragozan egon zela preso jakinda, hartako hilerrietara deika hasi zen Pilar. "Banaka-banaka hasi nintzen hilerrietako kideekin harremanetan jartzen, eta, halako batean, aurrez ezezkoa eman zidaten hilerri batetik dokumentu bat iritsi zitzaidan. Gure aitona 1938ko uztailaren 14an hil zela zioen paper hark, eta bi egun geroago, uztailaren 16an, hilobiratu zutela, Torreroko hilerrian, Zaragozan. Paper hari esker jakin genuen non eta noiz hil zen.

Gerora, aitonaren hezurak Erorien Haraneko basilikako zer puntutan zeuden zioen beste dokumentu bat jaso nuen; baieztatu genuen aitonaren gorpua Torreroko hilerritik atera eta Erorien Haranera eraman zutela familiari ezer esan gabe. Bi dokumentu haiekin Madrilera joan gintezkeen laguntza eske", dio Pilarrek.

Amaren izenean bina gutun igorri zituzten erakunde horietara. "Gutun haietan Europako Kontseiluak onartutako artikulua bat aipatzen genuen; sendiek familiartekoen gorpuzkiak beraiekin izateko zuten eskubideak aipatzen zituen artikulua hark. Bestalde, aitona Espainiako Gerrako biktima izendatzea ere eskatu genuen, baina inongo diru saririk ez espero izateko erantzun ziguten". Azken esaldi hori gogoratzeak sumindu egiten ditu familiako kideak. "Beti esan izan dugu garbi ez dugula inongo mendekurik nahi, ezta inongo onurarik ere. Hildako aitona era duin batean tratatzea soilik nahi dugu. Francoren aldeko hildakoak elizetako aldareetan egon dira, baina badirudi beste aldekoak ez direla existitu ere egin. Gu ez gatoz inongo zauritan arakatzera, ezta ezer aurpegiatzerara ere; hainbeste sufritu duen pertsona bati duintasuna eman nahi diogu. Besterik ez", dio Ferminek.

2018an Espainian izandako gobernu aldaketaren ondorioz, gauzak mugitzen hasi ziren Madril: senitartekoen hezurak Erorien Haranetik ateratzeko eskatu zuten familiak bilera batera deitu zituen Patrimonioko zuzendaritzak 2019. urtean. "Gorpuzkiak ateratzeko erabakia hartuta zegoen, eta gure eskaera izan zen aintzat hartu zutenetako bat. Aitonaren hezurak Santo Sepulcro kaperan zeuden, eta handik ateratzeko lanetan hastekoak zirela adierazi zuten".

"Bideragarritasuna" hartu behar zen kontuan, ordea. Basilikaren egoera aztertzeke ikerketa egitea eskatu zuen erakundeak, eta lan haren emaitzak garbi erakutsi zuen gorpuzkiak ateratzea ez zela hain erraza izango. "Gogora institutuaren egoitzan egindako bilera batean esan ziguten basilikako toki batzuk oso kaltetuta zeudela, eta ondorioz, ezin izan zutela sartu leku batzuetara. Zuntz optikodun kamera baten bidez ikusi zuten kaxa batzuk puskatuta zeudela, erorita, eta hezurak lurrian botata. Madrilek konpromisoa hartu zuen hezurak ateratzeko, baina edozein arrisku, edozein istripu saihesteko, basilikako leku horiek habeekin sendotu behar zituzten. Eskatu ziguten itxaropen handirik ez izateko, egin beharreko lanen bideragarritasuna eta proportzionaltasuna kontuan hartuko zituztelako".

Tenpluaren egoera aztertzeko zuten bitartean, familiartekoen DNA laginak hartzea eskatu zieten Patrimonioko ordezkariak, hezurak aitonarenak zirela baieztatzeke helburuz. Amaren eta pare bat lehengusuren laginak eramanda dituzte Donostiako laboratoriora batera, eta orain hezurak atera eta lagin horiekin probak egiteko zain daude.

"Gorpuzkiak ateratzeko erabakia hartuta zegoen, eta gure eskaera izan zen aintzat hartu zuteneko bat"

Aitona bilatzeko egindako lanak familia elkartzeko balio izan die

Batallón Trabajadores n.º 138		Comp.º	Clase	Enrolado	N.º
Apellidos	Luchaurondo Gaurborea	Nombre	Hilario		
Naturaleza	Berastegi	Provincia	S. Sebastian		
Edad	42	Fecha de nacimiento	de	de	
Estado		Núm. de hijos	(	varones y	heml
Nombre de los padres	Martín y María				
Profesión	Cigarrero	Residencia	Padagos.		
Provincia	Sebastian	Calle			
Frente donde fué hecho prisionero	Gijón				
Junta clasificadora	Gijón	Clasificación			
Alta en el Batallón	12	de	Junio	de 1931	Procedencia
Baja definitiva		de		de 1931	Motivo

Langileen batailoian aritu zeneko ziurtagiria.



2019an Getarian egin zen omenaldiko argazkia.

Berastegiko Udalarekin ere jarri ziren harremanetan aitona bertako hilerrian lurperatu ahal izateko. "Alkateak esan zigun ez zela horretarako inongo arazorik izango, gorpuzkiak berreskuratzen baldin bagenituen eremu bat egokitu-ko zutela haren hezurrei atsedena emateko".

Prozesua abian egonagatik, *impassé* egoeran daudela diote anai-arrebek. "Iazko maiatzean deitu nuen azken aldiz Patrimonia, eta esan zidaten basilikan lanean hasteko baimen guztiak lortu dituztela. Guk, gure aldetik, DNA laginak eman ditugu, eta orain zer gertatuko den zain gaude".

Familia harremanak

Aitona bilatzeko egindako lanak familia elkartzeko eta senideen arteko harremanak estutzeko balio izan diela ere gaineratu dute Pilarrek eta Ferminek. "Aitona Erorien Haranean zegoela jakin genuenean, lehengusuon arteko harremanak areagotu egin ziren. Getarian Espainiako Gerrako biktimak omendu zituztenean, Tolosako, Zumaiako eta Getariako lehengusuak elkartu ginen, eta bildutako informazio guztia elkarbanatu genuen: Berastegiko sustraiak, Pasaiaiko bizipenak, aitonaren eta amonaren argazki batzuk, bidean gauzatutako prozedura guztiak... Guztia pasatu genien lehengusuei".

Omenaldia 2019ko martxoan izan zen Getariako hilerrian. Frankismoaren aurka borrokatu eta errepresioa jasan zuten getariar guztiak omendu zituzten ekitaldi hartan. "Omenaldi xumea bezain hunkigarria izan zen. Familiak isilean gorde dituzte historiak; min handia bizi izan da familietan". Getariako Udala "biziki" eskertzen dute omenaldi hura egiteagatik, baita aitona aurkitzeko bidean lagun izan dituzten banaka-koak eta elkarteak ere, hala nola Irungo laguna, Aranzadi zientzia elkarte, Gogora Institutua... "Laguntza hori edukitzea ezinbestekoa izan da", dio Pilarrek.

84 urte beteko dira aurten Martín Hilario Intxaurren hil zela. Pasaia joan izan denean oraindik ere haren oihartzunak aurkitu izan dituela dio Ferminek. "Behin kuxkuxeatzera joan eta aitona-rena zen lokalean sartu ginen. Pintore batzuk zuten alokatuta, eta orain 80 urte bezalaxe zegoen: pipiak jandako baldak, hormak... Han ez zutela ezer berritu zirudien; gure aitona utzita bezala zegoen. Gaur egun, handik pasatzen naizenean zera esaten dut: 'Hemen gure aitona-rena lokalak'".

“Memoria historikoa ez da erabili behar gorrotoa transmititzeko, gertatutakoa barneratzeko baizik”

AINTZANE EZENARRO GOGORA INSTITUTUKO ZUZENDARIA



Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria da Aintzane Ezenarro (Getaria, 1971). Garai gordinenetan demokraziaren alde lan egin zutenen memoria jasotzearen beharra aldarrikatu du hark.

Zer helbururekin sortu zen Gogora?

Eusko Legebiltzarrak eta zenbait taldek bultzatuta sortu zen Gogora, memoriaren politika publikoak koordinatzeko helburuarekin. Atzera begiratu behar zela pentsatzen genuen, begirada hori egiterakoan genituen desberdintasunak kontuan hartuta. Gogoraren zuzendaritza 30 pertsonak osatzen dute; legebiltzarreko talde guztien –VOX kenduta–, Eusko Jaurlaritzako sailerako, Eudeleko nahiz herri erakundeetako ordezkariak. Adibidez, Paco Etxeberria zuzendaritzako kidea da; zuzendaritzan denetarik izaten saiatu gara.

Memoria historikoaren lanketa horretan Espainiako Gerra eta lehen frankismoa jasotzen dira, baina baita 1960tik aurrera sortutako bestelako indarkeriak eta haiek eragindako sufrimenduen gaineko memoria ere. Giza eskubideen urraketen memoriaz ari gara

hizketan, balio demokratikoei eutsi zioten pertsonen eta kolektiboen inguruan. Ez dugu soilik traumaren transmisioa landu behar; bereziki, egoera zailenetan berdintasunaren, askatasunaren eta justiziaren alde egin zuten pertsona horien memoria ere jaso behar dugu.

Zer lan egin dituzue urteotan?

Memoria historikoari buruzko ikerketa asko egin ditugu. Adibidez, ikerketa bat gauzatutako ondoren jakin dugu, gutxienez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 21.000 pertsona hil zirela 1936ko gerran. Aurretik ez zegoen halako errolda ofizialik, eta hori egiteko erregistro zibil guztiak, parroketako erregistroak, hilerrietakoak, paperak dauden leku guztiak arakatu ditugu modu sistematikoan. Horrek ez du esan nahi horiek direnik gerran hildako guztiak, baina horiek badira, behintzat. Izenak bakarrik ez, pertsona bakoitzaren dokumentazioa ere berreskuratu dugu. Orain, presoekin ari gara lanean, preso egon ziren guztiekin. Lehen atakan, 1945. urtera arteko presoek zerrenda egingo dugu, eta gero, epeak zabaltzen joango gara.

Garai hurbilagoko kontuen inguruko ikerketak ere egin ditugu, eta horiek ezagunagoak dira. Ikerketa asko egin ditugu ETArek eta beste terrorismo mota batzuen inguruan. Biktimen testigantzekin osatutako ikus-entzunezko bilduma bat ere badugu; gerra garaikoen testigantzak daude jasota, baina bereziki, gaur egungo biktimenak. Biktima guzti-guztiei eskaini diegu beren testigantza grabatzeko aukera; etorkizunerako hor gera daitezke horiek.

2023ra begira, berriz, XX. mendean Euskadin egindako giza urraketen inguruko erakusketa bat ari gara prestatzen, batez ere testigantzetan oinarrituta. Dena den, historia ere kontatuko du. Izugarrizko erronka da. Gure helburua urraketa horiez hitz egitea da, bereziki urraketa horiek jasan dituztenen ahoetatik.

1960tik hona izandako indarkeria kasuek ezkutatu egin al dituzte Espainiako Gerran eta ondorengo urteetan izandakoak?

Orduan gertatutakoak ez dira egon estalita ETArek indarkeriagatik; estalita egon dira trantsizio eredu bat ezarri zelako Espainian. Ez zait gustatzen muturreraino kritikatzeara, garai hartan ez zen-eta erraza izango trantsizio hura egitea. Baina orain egiten ari garen memoriaren inguruko lanketa honek zerbait erakutsi badu, memoriarik gabeko trantsizioa egitea ez zela ideia ona izan da. Izan ere, ez du zauririk konpondu, eta sufrimenduak hor jarraitzen du. Gero, beste 40 urte pasatu dira memoriaren kontu dena martxan jarri den arte.

2000. urtean, Emilio Silva bere aitonaren bila hasi zen, eta aurkitu egin zuen; horrek jarri zuen martxan desobiratze prozesua. Lehen exhumazio hartan izan ziren Paco Etxeberria eta Lourdes Errasti. Egindako lanaren aitzindariak izan dira, ez Euskal Herrian bakarrik, baita Espainian edota munduan ere. Bide bat ireki zen, eta hari tiraka, lege berriak egin zituzten Espainian. EAEn baino geldoago doa kontua, hala ere; hemen jarraipena izan du lanak 2000. urte hartatik.

Orain, desobiratze prozesua ia-ia amaitu dela esan daiteke. Noizean behin agertzen da da hobiren bat –orain gutxi Bilboko Begoñako hilerrian

"MEMORIARIK GABEKO
TRANSIZIO BAT EGITEA EZ
ZEN IDEIA ONA IZAN"

agertu da bat–, baina lan asko eginda dago jada. Esan beharra dago EAEn ez dagoela desadostasun handirik gai honen inguruan; PP ere ez dago guztiz kontra. Ez da eztabaidarako gaia; denok batera goaz, eta nahiko ondo doa prozesua.

Pena handiena da jendea hil egin dela; kasu batzuetan, 36ko gerran borroka egin zutenen seme-alabak ere hil dira. Laster omenaldi bat egingo dugu Derioko Vista Alegre hilerrian, eta fusilatu zituzten herritar guztiak gogoratuko ditugu. Guztira, 1.500 lagun fusilatu zituzten, eta 500dik gora hilerri horretan. Haien familien kontaktuak baditugu, eta gonbidatuko ditugu omenaldira. Berandu da, baina familiarteko batzuek izango dute omenaldi hori bizitzeko aukera, eta hori da pozik handiena ematen didana.

Gai hau aipatzen den bakoitzean, Espainiako gizarteko edo politika munduko ordezkari batzuek diote halako eskaerekin, halako ikerketekin, zauriak zabaldu egiten direla.

Pedagogia lana egin behar da, baina oraindik ere bi Espainien kultura oso errotuta dago. Anai-arreben arteko gerrak oso zailak dira kudeatzen, are gehiago gaizki ixten baldin badira. Hemen ez zen gerra zibilik egon; demokraziaren kontrako kolpe bat egon zen, eta huts egin zuen eta horrek eragin zuen gerra. Nik uste bide onetik ari direla orain; pedagogia demokratikoa egiten ari dira, azpimarratzen dute demokrazia batek ezin duela halako ezer jasan. Eta hori letra guztiekin esan behar da.

Memoria historikoa lantzerakoan, gordin jokatu behar da, geure buruari gezurrik esan gabe. Memoriak ez du izan behar besteak egindako oker hori azpimarratzeko. Memoriak balio behar digu kamerari buelta eman, eta zera pentsatzeko: 'Ni non egon naiz?', 'nik zer egin dut edo zer ez dut egin?', 'orain dakidanarekin zer egingo nuke?'. Memoria ez da erabili behar gorrotoa mantentzeko edo transmititzeko,

memoriak balio behar du gertatutakoa barneratzeko eta aurrerantzean halako jokabiderik ez dudala izango erabakitzeko. ■

GORPUAK ATERATZEKO ESKAEREN ERDIAK EUSKAL FAMILIENAK

Gerra amaitu eta hurrengo urtean hasi ziren Erorien Haraneko lanak egiten Guadarramako (Madril) mendilerroan, Francisco Franco Espainiako diktadoreak hala aginduta. Hemezortzi urte behar izan zituzten lanak amaitzeko, eta hurrengo urteetan Espainiako Gerran hildako hainbat gorpu eraman zituzten hara. Lehenbizi, matxinoen aldekoenak; errepublikazaleenak ere bai, ondoren. 33.000 gorputik gora daude gaur egun Cuelgamuros-eko haranean eraikitako monumentu faraoniko horretan.

"Monumentua izugarri handia zen, eta familiei eskatu zieten beren familiartekoen gorpuak Madrilerara bidaltzeko", jakinarazi du Aintzane Ezenarro. "Gobernadore zibilek eta orduko alkateek kontsultak egin zituzten matxinoen alde borrokatu zutenak non zeuden lurperatuta jakiteko, eta ondoren, familiei baimena eskatu zieten gorpuzkiak Haranera eramateko. Familia askok, nahiz eta gerran frankisten alde borrokatu, ez zuten beren senitartekoak hara eramaterik nahi. Dena den, gorpuak baimenik gabe eramaten hasi ziren agintariak. Gerora, katolikoak ziren errepublikazaleen gorpuak eraman zituzten hara, eta azkenerako, edozein eramaten hasi ziren. Oso patetikoa izan zen guztia", dio Ezenarro.

Eusko Legebiltzarrak 2018an egindako proposamen baten ondorioz, Gogora institutuak ikerketa bat abiarazi zuen Erorien Haranean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbat lagun hilobiratu zituzten, haien jatorria zein zen eta hilobiratzeko familiaren baimenik izan al zuten jakiteko. Ikerketaren arabera, euskal jatorriko 1.234 lagun daude han hilobiratuta: horietatik daude 920 identifikatuta. Kasu gehienetan, ezin izan dute zehaztu gorpuak lekualdatzerakoan senideen baimenik izan al zuten.

Erorien Haranetik senideen hilotzak ateratzeko eskaerak egin dituzte familia batzuek urteotan. Ezenarroken esanetan, 64 eskaera onartu ditu Espainiako Gobernuak, eta horien erdia inguru -31, zehazki- euskal familienak dira. "Esaten ez den beste datu bat da 31 kasu horietako gehienak matxinoen aldekoak zirela. Batzuk errekrutatu egingo zituzten, eta izango ziren preso egonda frentera eraman zituztenak ere, baina haietako batzuk beren borondatez borrokatu zuten Francoren alde. Ahaztu egiten zaigu iraganaren konplexutasuna nolakoa den".

Desobiratze prozesua hasi zenetik, prozesua geldiarazteko errekurtsioak egon direla azaldu du Ezenarro. "Batzuen atzerapen estrategia hori da, baina sinesten dut, hala esan digutelako, badagoela Harana irekitzeko borondatea. Ulertzen dut familiak denbora asko ari direla itxopen eskaera egin zutenetik, baina ez dago gure esku", adierazi du Gogorako zuzendariak. ■



Azkoitian egindako desobiratzea.

GOGORA



Desnibela 414 m
Zailtasuna ●●●●●
Luzera 11 km
Denbora 3 ordu

Erreferentziak
 0.00 Uztapide plaza, Zestoa
 0.40 Iraeta auzoa
 1.00 Arroa Goia auzoa
 2.00 Endoia auzoa
 2.40 Ekainberri
 3.00 Zestoa



ZESTOAKO TXOKO BEREZIEI JARRAIKA

MIREIA GALARZA BASTIDA

Zestoako ikur ukaezina da bainuetxea, baina herriko txokoek badituzte ezkutuan bestelako altxorak ere. Uztapide bertsolaria zenaren izena hartzen duen plazatik hasten da hilabete honetako proposamena, bere omenez dagoen bustoaren aurrean. Handik, herriko plaza zeharkatuta, garai bateko tren estazio aldera joan beharko du mendizaleak, ondoren Iraetako bide berdea hartzeko.

Trenaren zubia igarota, zeharo aldatuko da paisaia, zuhaitzen magalean barneratuko baita mendizalea. Bidean zehar igaroko ditu garai batean Urolako trenak zeharkatzen zituen tar-teak. Behin Iraetara iritsita, ezkerrean hartu behar da bertan, Arroa Goikoa auzora joateko. Bide zati hori kontu handiz egitea komeni da, autoak igarotzen baitira leku horretatik. Juan Erentxun kalean aurrera jarraitu behar da gero, maldan gora. Bidegurutze bat egongo da al-dapa amaiera samarrean, eta puntu horretan eskubira hartu beharko du mendizaleak, Endoia aldera, leku berean argibideek adierazten duen bezala. Mendibidea hasten da hor, eta eguraldiaren arabera lokatz dezente ere topa daiteke, beraz, komeni da tentuz ibiltzea.

Handik barrena Endoia iritsiko da mendizalea, Uztapideren umetako auzora, eta nekatuta sentituz gero, aukera izango du bertako

tabernan zerbait hartzeko. Hasitako leku berean amaitzen da ibilbidea, Zestoan, baina bertara itzultzeko bi aukera daude: bide berria eta zaharra. Berria azkena egindakoa da, autoek erabiltzen dutena; zaharra, aldiz, ezezagunagoa, garai batean Endoiko bizilagunek herrira jaisteko baliatzen zutena. Bertatik jaisteko, Zestoako errepidea hartu beharko dute herritarrek, eta Txankarta baserriaren ondotik beheraka hartu. Handik iritsiko da mendizalea Sastarra-nera, Ekaingo kobetako museora eta Lili Jau-regira. Behin leku horretara iritsita, Zestoako herrigunearekin egingo du topo mendizaleak.

Nola iritsi

- Autobusez. Barrualdeko herrietatik joateko UK01, UK03, UK05 eta UK06 lineak erabili behar dira. Kostako herrietatik, berriz, UK03 eta UK06 lineak iristen dira Zestoara; Zarauztik eta Zumaiatik abiatzen direnak, hain zuzen.
- Autoz. Autobusez iritsi ezin daitekeen herrietatik joateko, berriz, autoa hartu beharko da.




Xabat Olaizola aurkezleak Manuel Arregi zestoarra izan du bidelagun ibilbide osoan zehar.



TELEBISTAN ERE
GUKA! erto



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara martxoaren 21a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Otsaileko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 28. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta lera Zinkunegi bazkidea izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Txiki-txikitatik izan dut moda munduarekiko interesa"

KARMELE ZABALETA MERKATARIA

Arropa denda baten jabea eta Bertan merkatarien elkarteko lehendakaria da Karmele Zabaleta. "Egonezin handiko pertsonatzat" du bere burua, eta horrek gidatu du bere ibilbidea. Moda eta jendearekin lan egitea; horra hor bere bi pasioak.

Testua: **Ihintza Elustondo**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Ihintza Elustondo eta utzitakoak**.

Loiolako Berrosueta Barrena baserrian jaio zen Karmele Zabaleta. "Haurra nintzela, amarekin azokara joaten nintzen barazkiak saltzera", azaldu du. Huraxe izan zen Zabaletak merkataritza munduarekin izan zuen lehen harremana. Eta nola izaten diren gauzak; gaur egun, herriko saltoki baten arduraduna izateaz gain, Bertan merkatarien elkarteko lehendakaria ere bada.

Haurtzaroa baserriari lotuta eman izanagatik, Loiolako neska txiki hark bazuen beste afizio bat: "Armairuetan begira aritzen nintzen, ilea orraztea eta makillatzea gustatzen zitzaidan...". Ume hark odolean ekarri zuen moda munduarekiko interesa. "Uste dut txiki-txikitatik izan dudala hori. Garbi-garbi neukan nire ofizioa zein izango zen". Ondoren, ikasketak ere arlo horretatik bideratu zituen: estetika eta ile apainketa ikasi zuen. Lehen urratsak estetikaren munduan egin zituen arren, Zabaletaren arabera, ez dira bi arlo ezberdin estetikarena eta modarena. "Niretzako elkarrekin doazen gauzak dira".

Ikasketak amaitzean, berehala hasi zen lanean Zabaleta. Estetika arloan aritu zen hamabost

urtez, azken urteetan, Donostian. Dena den, "hazteko eta ikasteko gogo" zuen, eta beste etapa bat iritsi zen haren bizitzara: bere negozioa martxan jartzera ausartu zen. "Egonezinak nituen, eta lanerako gogoak bultzatu ninduen pausoa ematera", esan du. Hala, emakumeei zuzendutako arropa denda zabaldu zuen 2013an Azpeitian: Koket.

Aldaketa bikoitza izan zen hura: izan ere, besteentzat lan egitetik norberarentzat aritzera egin zuen jauzi Zabaletak, eta Donostian lan egitetik Azpeitian lan egitera igaro zen, sorterriarekiko lotura estutuz. Zortzi urte eman zituen aurrez Donostian lanean, eta gaur egun ere han bizi da; egunero etortzen da lanera Azpeitira.

Hirian edo herrian, emakumeak norberaren azalean gustura sentitzeko helburuarekin lan egiten du beti Zabaletak; horixe da haren zeregina, bokazioa. "Pertsona bat dendatik gustura irten eta bueltatu egiten dela ikustek dena ematen dit", adierazi du. Jendearekin hartu-emana izatea, herritarrekin lan egitea; horra hor Zabaletaren beste pasio bat. "Horrek jende pila bat ezagutzeko aukera ematen dizu, herritarrekin elkarriketak izatekoa ere bai,





laguntasuna eta gertutasuna sortzen dira bezeroekin, bizipenak kontatzen dizkiogu elkarri...". Horrek "erabat betetzen" duela azaldu du: "Hori Internetak ez dizu ematen", erantsi du.

Gustuko lekuan, aldapa

Gustuko lanean aritzeko zortea du Zabaletak: "Tristeia litzateke egunero lanera joateko gogoz kontra jaikitzea", dio. Baina gustuko lekuan aritzeak ez du esan nahi bidean aldaparik agertuko ez denik: COVID-19ak ekarri duen guztiak erabat aldatu ditu herritarren ohiturak, baita erostekoak ere. "Kontsumoa jaitsi egin da. Ostalaritza egon den bezala egon da, ekitaldiak bertan behera gelditu dira... Gutxiago saldu da, ekonomia zirkularra delako. Ez dakit kontziente garen zer garrantzitsua den ostalaritza eta merkataritza bizirik mantentzea. Hori da herri bizia", esan du. Egoera ezezagun horren aurrean, emozioak kudeatzea ez dela izan "erraza" nabarmendu du.

Dena den, ezohiko egoera horrek alde onak ere ekarri dituela uste du Zabaletak. "Txalotzekoa izan da jendearen erantzuna. Herriko merkatariorik asko eskertzen dugu hori". Aldaketa bat ere nabaritu dute bezeroen artean: "Orain etortzen

diren bezeroak erostera etortzen dira. Publiko jakin bat desagertu egin da". Uste du bertan erosteko kontzientzia ere areagotu egin dela herritarren artean.

Bakarrik ez sentitzeko

2016az geroztik, Bertan merkatarien elkarteko lehendakaria da Zabaleta. Bi urtez behin egin ohi dute zuzendaritza batzorde aldaketa, eta gaur-gaurkoz, hirugarren agintaldia du lehendakari

Karmele Zabaleta

- **Jaiotze data:** 1975eko uztailaren 16a.
- **Ikasketak:** Estetika eta ile apainketa.
- **Lanbidea:** Merkataria.
- **Merkataria ez banintz...** Ez dut neure burua beste ezertan imajinatzen. Merkataria ez banintz ere, merkataritzari lotutako zerbait egingo nuke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Kirola egitea eta familiarekin nahiz lagunekin egotea.





gisa. 2008an sortu zen elkarteak, eta etengabe egoera berrietara egokitu eta askotariko lanketak egin behar izan dituztela nabarmendu du. Elkarteak herriko merkatariek osatzen duten arren, teknikariak euskarri garrantzitsua direla dio: "Lan pila bat egiten dute tekninkariek, ikusten ez den lan asko".

Elkarte hori gauza askotan da lagungarri herriko merkatarientzat, Zabaletaren arabera: "Elkarteak euskarri garrantzitsua da merkatariontzat, zerbait behar dugunean hor dago, eta bakarrik ez gaudela sentiarazteko balio digu. Izan ere, hain gara txikiak, askotan ez gauden sentipena ematen du. Denok elkartuta egotea da bidea. Kezkak nahiz zalantzak elkarbanatzen ditugu, eta niretzako hori

da oinarri-oinarria, elkarbanatzea. Sustrai bat da elkarteak".

Bat eginda indartsuagoak diren arren, errealitatea ez da hain baikorra: azkenaldian, denda asko itxi dituzte herrian. Zabaletak uste du hori joera orokorrago baten parte dela; ez dela Azpeitian soilik gertatu, alegia. "Zer ari da gertatzen? Arrazoi ezberdinak egon daitezke itxiera horien atzean, baina Interneteko salmentek eragin egin digute, hori ez dago ukatzerik", dio. Hala eta guztiz, aukera baliatu nahi izan du herriko saltokietan erosteak zenbaterainoko eragina duen nabarmentzeko: "Denok kontziente izan eta gure aletxoa jarri beharko genuke. Izan ere, gure eskuetan dago etorkizuna nola marraztu erabakitzea".

Interneten erostea ekintza soil bat baino gehiago dela uste du: "Klik bat baino gehiago da erosketak Internetez egitea". Zergak kanpoko herrialdeetan ordaintzen dituzten plataformetan erosketak egiteak zer ondorio dakartzan gogorarazi du: "Zerbitzu publiko duinak izatea nahi baldin badugu, gure kalterako da plataforma horietan erosketak egitea. Guk ez badugu bertan kontsumitzen, itxierak etorriko dira. Eta baten itxierak besteari eragiten dio...". Uste du, gainera, egungo egoeran inoiz baino argiago gelditu dela zer garrantzitsuak diren osasun eta hezkuntza sistema publiko duinak.

Zabaletak 24 urte daramatza jendearekin lanean. Orduak ematen ditu Azpeitiko bere saltokian, eta beste ordu ugari atzeko lanetan, atearen beste aldean: hurrengo denboraldirako eskaerak egiten, arropa berria bere lekua jartzen edo sare sozialak nahiz webgunea elikatzen; normalean, ez da geldirik egoten. "Burua beti lanean egoten da", dio. Une honetan, lanean segitzeko ilusioz dago, baina ez dauka argi etorkizuna zein izango den: "Horrela ondo nago, eta horrelaxe jarraituko dut' ez dago esaterik. Etorriko da etorri behar duena". ■

bertako

gogakutzi / Escenariak

EUSKARA,

GURE HELBURU KOMUNA

12. HERRIKO HITZAKIN

ARABA
945 712 822

GIPUZKOA
943 903 450

DEITU EGO BISITATU
www.bertako.eus

BIZKAIA
946 523 935

NAFARRA
948 870 917

Hementxe dala



IMANOL AMIANO

Libratuko ginela ere pentsatuta nengoan, Van Gaal olerkariak errezitazten zuen bezala, "*siempre negativo, nunca positivo*" ateratzen baitzitzaigun ordura arte egindako antigeno probetan; ostegun hartan, ordea, normalean naizena baino tontoago iritsi nintzen lanetik etxera, eta buruko tontorrari hotzikarak gehitu zitzaizkion, oherakoan: sudurzuloak arakatura, bi marra gorri salagarri agertu ziren txarteltxo zurian, filmetako indioek gerrarakoan masailean marraztutakoak bezalakoak. Hementxe dala!

Zazpi egun aurretik hausnartzeko. Hirugarren egunerako, ordea, sukarra pasatuta eta majo gogaituta, eginkizun transzendente horietarako ordu askotxo zirelakoan –ez dut pentsatu nahi zer izan litekeen hiru aste oso, herriko anakoretak egin moduan, wifi eta Netflixik gabe, soilik neure buruarekin egotea–, normalean egiten ez ditugunak egiteko aprobetxatzea pentsatu nuen: gehienez bizpahiru aldiz erabilitako bainera bete –denbora kontua izango da, baina oraindik *dutxayakoei* ez diegu deitu–, eta han etzanda ura hoztu arte ederki egongo

nintzela irudikatu nuen; hainbeste litro ur horrela xahutzeak ingurugiroari kalte egiten ziola ere pentsatu nuen, baina ez ziren planetaren etorkizunari buruz pentsatzeko uneak, nahikoa nuen neure buruarekin. Baineran, ordea, ordu erdi nahikoa izan nuen; lagunduko zuen horretan nire metro eta laurogeiak bertan behar bezala ez kabitzeak ere; izan ere, JB Toshack poeta galestarraren mantaren mantra gogora ekarrita, burua ur azpian izateko, oinak –baita izterrak ere– kanpoan behar, eta alderantziz.

Eta horrela –gosaria-bainua-filma-bazkaria-albisteak-liburua-afaria-seriea-ohea–joan zitzaizkigun orduak gure basoko zuhaitzeko etxean. Bitartean, emazteari ere indioen gerra-pinturak azaldu zitzaizkion; bi apopiloak, *negativo*; bainurik ez zuen behar izan gure neskak behar bezala hausnartzeko, eta, bide batez, guri lezio ederra emateko: ez genuen mastara

**MASKARA
ATSEGINAGOREN BAT
JANTZITA, EZ GAITZALA
ZEZENAK BERRIZ
HARRAPA**

lotu beharrik izan, argi baitzeukan asteburuko sirena-kantuei entzungor egin behar ziela, eta ez zuen baliatu protokoloaren enegarren aldaketak baimendutako "bizitza normalaren" zirrikitua bere ardurari iskin egiteko. Eta eskerrak, gero hari ere Jeronimorenak agertu baitzitzaizkion –semea libratu zen, baina hiru baten kontra, gorotza bakoitzarentzat bada ere, hura isolatuta–. Bat gutxi ez, eta bi asteko penitentzia, azterketa, saskibaloi eta parrandarik gabe.

Eta horrela –jan, edan, lo, hausnartu eta aspertu–, lerro hauek idaztearekin bat atera ginen berriz kalera, karnabalak zerumugan, maskarak derrigorrezkoa izateari utzi zion egunean bertan. Harrezkero, korrika saioa ere egin dut, eta porru eginda amaitu *handikoaldeko* joan-etorria; laurogeita hamapiku kiloek eta berrogeita hamapiku urteek zeresana izango zuten, baina astebete lehenago ere banituen, kiloak zein urteak. Bitxoak eragin du berea, zalantzarik gabe. Orain, beharbada inozente jokatura baina kontzientzia elegante, maskara atseginagoren bat jantzita, ez gaitzala zezenak berriz harrapa. Hementxe dala! ■



Eguraldi iragarpena

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.



Mezu gordea

Esan zehar asko eguraldia iragartzeko trukuak direla ematen du. Jarri iruditxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta asmatuko duzu zer dioten honako honek.





Irudi engainariak

Puskatxo hauek irudi handitik hartuta daude eta beste irudiak engainariak dira; hau da, ez dafok irudiarekin bat, osoantzeak izan arren. Bereiz (tzazu).



Bakoitziari berea

Latu hitz bakoitziari dagokien irudia. Kontuan hartu mada bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dago ez dela beharbesteko zuk eragutzen duzuna.

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Egurrari kolpeka aurrera egin zuen artista

52 urte zituela hasi zen Javier Iraeta egurrezko eskulturak egiten. Bere bizitzako momenturik txarrean egurra "salbazioa" izan zela aitortu du eskultoreak. Txikitatik izan zuen, ordea, artearen munduarekin kontaktua, eta Azpeitiko hainbat egitasmo kulturetan murgilduta ibili izan da beti.

TESTUA: NAGORE AIZBITARTE

ARGAZKIAK: NAGORE AIZBITARTE ETA JEXUX ARTOLA

Haurra zela, 4 edo 5 urte zituela, ohartu zen Javier Iraeta (Azpeitia, 1941) marraztea asko gustatzen zitzaioela. Gogoan du edozein lekutan eta ahal zuen denetan marrazten zuela. Eta marrazten hasi zen ume harenak dira gaur egun hainbat txokotan aurkitu daitezkeen lanak, hala nola Iraetaren lanetako bat da Frontoi Txikiaren alboan dagoen sokamuturraren brontzezko eskultura. Ez da hori, baina, Azpeitiko herriari utzi dion ondare bakarra. Izan ere, diseinuaren alorrean ere ibili zen, eta berak diseinatu zituen, adibidez, Azpeitiko Udalaren ikurra, danborradarena edota Itsasi dantza taldearena.

Baina sorkuntza horietara iristeko bidea askoz lehenago

hasi zuen. 13 urterekin Arte eta Ofiziozko gaueko eskolara joaten hasi zen, marrazketa artistikoan espezializatzeko. Sei ikasturte egin zituen han, eta gogoan du ez zela batere gaizki moldatzen: "Sei urte haietan aurreneko bost sari irabazi nituen hainbat lehiaketatan, eta horrek poz handia eman zidan". Etapa hartan asko ikasi zuela dio, baina ez zuen inoiz pentsatu etorkizunean arlo horretatik bizi ahal izango zuenik.

Horrela, 21 urterekin Danona enpresan hasi zen lanean Iraeta. Han lanpostu ezberdinetan aritu zen, baina urteak igaro ahala,

**"EGURRA ETA
ESKULTURA BEHAR
ZUTEN UNEAN IRITSI
ZIREN NIRE
BIZITZARA"**

diseinuaren alorrean murgildu zen. Dena den, 35 urte inguru zituela, "motz samar" zebilela ohartuta, diseinu ikasketak egitea erabaki zuen. Azpeitiarraren esanetan, ez ziren egun errazak izan haiek: "Arratsaldeko seietan fabrikatik atera eta Donostiara joaten nintzen eskolak jasotzera. Etxera gaueko hamarretan iristen nintzen, eta emaztea eta bi seme-alaba zain izaten nituen".

Denbora tarte hartan ere lotura estua izan zuen Azpeitian martxan ziren kultur arloko hainbat egitasmorekin. Agrupacion Musical Azpeitiana elkarteak kidea izan zen, eta lokalak prestatzen zituen hango kideen kontzertuetarako. Herriko antzerki taldearekin ere kolaboratzen zuen; taldearentzako dekorazio



tresnak eta agertokiak prestatzen zituen hainbatetan. Bestalde, Azpeitiko musika eskolaren sorrerako zuzendaritzako kidea izan zen, eta Urolako Kultura Mankomunitateko kidea ere bai hamar urte baino gehiagoz.

Bere esperientzia kontuan hartuta, Azpeitian bertan arte eta diseinu ikasketak eskainiko zituen eskola bat

irekitzeko ideia otu zitzaion eskultoreari 1980an: "Iruditzen zitzaidan herriko nahiz inguruko jende askok eskertuko lukeela halako eskola bat gertu izatea. Nik bere garaian Donostiara joan behar izan nuen, eta hori aldatzea nahi nuen". Horrela, 1980ko azaroaren 1ean ireki zituen atea Arte eta Diseinu ikastegiak, hainbat kooperatibaren laguntzari

esker. Iraeta hasieratik aritu zen eskola hartan irakasle lanetan, eta zuzendaria ere izan zen. Garai haien oroitzapen "oso ederrak" dituela azaldu du azpeitiarrak.

Zentroak oso ondo funtzionatzen zuela gaineratu du: "Lehenengo urteetan, kooperatiben laguntza izan genuen, eta ondoren, asko lagundu zigun Azpeitiko



Iraeta tailerrean egurra zizelkatzen. NAGORE AIZBITARTE

Udalak ere. Eskertzekoa da inguruan izan genuen babesa". Hamabi urteko ibilbidearen ondoren, ordea, arazo ekonomikoak zirela medio, zentroak ateak itxi behar izan zituen. 52 urte zituela, beraz, langabezia geratu zen Iraeta, zer egin ez zekiela.

Egurra salbazio

Garai haiek "oso ilunak" izan zirela esan du, baina garai

ilun haietatik dena argiztatuko zuen proposamen bat iritsi zitzaion: Gabino Aizpuruk, bere lankide zenak, egurrarekin eskulturak egiten hasteko esan zion. Bete-betea asmatu zuen. Iraeta berehala hasi zen egurra lantzen, eta azkar ohartu zen erraz eta oso gustura egiten zuen zeregina zela hura. Egurrari kolpeka pasio berri bat aurkitu zuen, eta horrek eman zion aurrera jarraitzeko

indarra: "Gaur egun argi daukat orduan egurrezko eskulturak egiten hasi ez banintz oso zaila izango zela iluntasun hartatik ateratzea". Eskulturak egiten ari zen bitartean "bakean" sentitzen zen Iraeta, eta hori berarentzat "izugarritzkoa" zela nabarmendu du.

Gai asko landu izan ditu Iraetak bere lanetan. Inspirazio iturri nagusia emakumeak eta amak direla



Iraeta, urteetan egin dituen lanen artean. NAGORE AIZBITARTE

adierazi du, baita lan pobreak, baserritarrak, arrantzaleak... Txikitako oroitzapenak ere baliatu ohi ditu lanerako: "Baserri batean hezitakoa naiz, eta horri lotutako oroitzapen asko dauzkat, bai lan gogorrenak, baita familiaren arteko harremanenak ere. Inspirazio iturri handiak dira horiek niretzat". Sorkuntza prozesuarekin asko gozatzen duela adierazi du, eta uste du

bere lanek ez dutela bestelako tailugile profesionalen amaiera bera. Dena den, hori ez da gehien kezkatzen duena; izan ere, harentzat eskulturak kontatzen duen istorioa da garrantzitsuenak: "Jendeak nire lana ikustea eta berehala ulertzea zer dagoen atzean".

Azpeitiarrak gogoan du erakusketa batean bere eskultura bat erosi zuten lehen aldia. Donostian izan

zen, eta erakusketak izan zuen "harrera onaz" gogoratzen da: "Jende pilo bat bertaratu zen, ederra izan zen". Ordutik beste hainbat erakusketa egin ditu, baina eskultoreak argi dauka erakusketen mundua ez dela "erraza". Dena den, Azpeitian jarri zuen azkenengo erakusketaren oroitzapen "polita" du. 2019ko urrian izan zen: "Saldu ez nuen saldu, baina jende ugari joan



Eskultorea duela urte batzuk. JEXUX ARTOLA



Iraeta obra batekin. JEXUX ARTOLA

zen hara. Askok ez zekiten horrelako lanak egiten nituenik, eta polita izan zen jendearen gertutasuna sentitzea".

Iraeta pozik dago urte guztiotan egin duen ibilbidea dela eta. Ez da inoiz damutu "berandu" hasi izanaz: "Egurra eta eskultura behar zuten unean iritsi ziren nire bizitzara". Deskubrimendu horrek nortasuna eman zion Iraetari, "nortasuna eta

bakea". Hala ere, badaki bere kasua "berezia" dela, eta horregatik, gaur egungo gazteei benetan gustuko duten horren aldeko apustua egiteko indarra bidali nahi die: "Ziur nago talentu handia dutela arlo askotan: antzerkian, marrazkigintzan, kantuan...".

Egurrari kolpeka hainbeste ordu eman dituen tailerrean, atzera begira jarri da Iraeta, eta eskerrak emateko baliatu nahi izan du unea. Hain zuzen

ere, gertukoengandik urteetan jaso duen babesa izan du gogoan, horiek "erraztasunak" eman dizkietelako. Haren esanetan, jada ez ditu lehen bezainbeste ordu ematen tailerrean, ez nahi ez duelako, "ezin" duelako baizik, baina argi dauka bere pasioa ez duela albo batera utziko: "Ahal dudan bitartean egurrak nire bizitzaren parte izaten segituko du; horretan ez dago zalantzarik". ■



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943-85 72 44

Arrogueta 27
20600
Eibar
943-85 72 44



www.urrategiinteriorismo.com

dica www.dica.es

Gogoan



IONE GURRUTXAGA

Bizitza errearen eta gure begien arteko distantzia laburrean pantaila bat jarrita bizi garen garaioan, itsasoaren bestaldetik etorritako mehatxu batek zer pentsatua eman izango dio bati baino gehiagori. Meta enpresa erraldoiak esan du Facebook eta Instagram Europan erabiltzea galaraziko duela Europako Batasunak bertan bildutako datuak Atlantikoaz bestalde eramateko baimenik ematen ez badio. Eta honezkero pentsatu du norbaitek: halako drama ote da ba denbora gehiegi alferrik galarazten digun sare sozial bat esku artetik kentzea? Egon lasai, sareari lotuta bizitzeko behar eta nahia hainbestekoa den mundu honetan, sare sozialen kasuan ere "sortuko dira besteak", eta perretxikoak zelaian nola, bat kentzerako hantxe agertuko da besteren bat.

Oraintxe bertan, ordea, kezka nagusia ez luke izan behar etorkizunean harrapatuko gaituen aplikazioan argazki dotoreak jarri, ezezagunekin eztabaidatu edo koreografia sinkronizatuak ikasi beharko ditugun aurreikusteak, baizik eta iraganean utzi dugun gure bizitza zati hori nola bilduko dugun pentsatzen hasi beharko genuke, zer gerta ere.

Ikastolako jaialdiren batean ateratako argazki hura,


nerabegaroko lotsa eta lotsagabekerien artean erdi-lapurtutako irudia, familiarekin txintxo-txintxo agertzen zaren erretratua, karnabalen batzuetan goizaldeko ordu txikietan taberna zuloren batean grabatutako segundoak, lagunekin egindako lehen bidaia zoro hartako oroitzapenak, kontzerturen bateko oihuak... Normala iruditzen zaigu sare sozialetan gure bizitzako momentu garrantzitsu eta ez hain garrantzitsu guztiak biltzea, eta momentu horietako oroitzapenak irudi horiekin lotuak izaten ditugu maiz. Baina zer gerta daiteke memoria dosi horietara iristeko biderik gabe geratzen bagara?

Egia da, plataforma handi horietan ez ezik, irudiei lotutako oroitzapen horiek beste makina bat tokitan ere jaso ditugula, telefono eta ordenagailuetan, sareko hodeietan edo urpeko hodeietan, nahi adina informazio gordetzeko aukera eskaini digutenez gero, baina, aizue, gizakia hain izaki

**ZER GERTA DAITEKE
MEMORIA DOSI
HORIETARA IRISTEKO
BIDERIK GABE
GERATZEN BAGARA?**

azkarra izanda eta hain aparatu txikian hain kamera onak edukita, zenbat txorakeria jartzen ditugun gure objektiboan aurrean! Eta, jakina, ea gero nor den gai urteetan norberak bildutako eta gainerakoen uztetatik jasotako lasto horren guztiaren artean oroitzapen goxoak dakartzan gari alea topatzeko. Eta behin ohitura batzuk geureganatuta haiek albo batera uztea oso zaila denez, konponbide berriak (edo ez hain berriak) topatzen hasteko garaia izango dugu: ez al da une egokia oroitzapen horiek irudiei lotutako nostalgia pilula izateari utzi eta taldean osatutako hitzezko kontakizun bihurtzeko?

Noizbait ezagutu genuen normaltasunera itzultzeko bidean abiatu gara, lagun kopuru eta ordu mugak atzean utzita: mahaiaren bueltan eseri, eta osa dezagun argazki eta bideorik eskura izan gabe ondorengoei azken bi urte hauei buruz kontatuko diegun historia, elkarrekin errazagoa baita ahaztuak genituela uste genuen horiek ere oroitzeta. Gogoratu, entzun, kontatu... Norbaitek esan du honezkero: hitzak haizeak eramaten ditu, ordea! Hitzak haizeak eramaten ditu, bai, baina sekula ez dago jakiterik haize horiek, beren bidean, zeinen belarrietara eta oroimenera iritsiko diren. ■




KOMUNIKAZIO MULTIMEDIA



egunkari

1



telebista

1



4
aldizkari



7
atan digital



B
BALEIKE

K
KARKARA

erlo
ERLO

MAXIXATZEN

UH
UROLA KOSTAKO
HITZA

U
UZTARRIA

ZH
ZARAUZKO
HITZA

Mugen barruan, hainbat tontor

Mendizaletasuna ondo errotutako afizioa da azpeitiarren artean. Are gehiago egungo egoeran: izurriak eraginda, askok hartu dute mendira joateko ohitura. Ziur asko, Xoxote da Azpeitiko gailurrik ezagunena, baina badira hain entzutetsuak ez diren beste hainbat tontor. Askok uste dutena baino muino gehiago daude Azpeitian.



ALTUENA, ERLO

Aterpea han kokatzen delako eta mendira igotakoan pintxo bat eta trago bat hartzea bezalakorik ez dagoelako, Xoxotera joateko ohitura dute herritar gehienek. Dena den, Erlo da Azpeitiko mugen barruan kokatzen den gailurrik altuena: 1.030 metro ditu, zehazki, eta Xoxotek, 913. Irudian, Erloko gurutzea.



TXIKIAK HAINBAT

Gailur handiak ez ezik, txikiak ere hainbat dira, 300-400 metro artean neurtzen dutenak. Anabe da hedabide honek bilketa egiterakoan aurkitu duen tontorrik txikiena; 352 metroko altuera du. Pixka bat altuagoa da argazki honetan ageri den Oñazmendi (397 metro). Herritar ugariak dute Oñatz aldera ibiltzera joateko ohitura, baina horietako zenbatek dakite Oñazko gailurra non kokatzen den?

AUZOETATIK GORA

Herriko muinoen zerrendan, badira auzoetakoek herrigunekoek baino hobeto ezagutzen dituzten zenbait. Horietako bat da Loretogaña, urrestildarren nahiz nuarbetarren artean ezaguna. Gainaldean pago ugari eta belardia daude. Lehen, erromeriak egiteko ohiko lekua zen hura.



ARAUNTZA ALA ARROITE?

Arauntza izenez ezagutzen dena da herritar askok bisitatu ohi duten beste gailur bat. Mendi horri lotuta, bada aipatzeko kontu bat: haren izena sarritan izan da eztabaidagai. Batzuek Arauntza dela, besteek Arroite izena duela, eta badira Arroita nahiz Arroitta deitzen diotenak ere. Gauza bera gertatzen da beste mendi askorekin ere: izen batekin baino gehiagorekin dira ezagunak, eta zenbaitek bataren alde eta beste zenbaitek bestearen alde egiten dute.



MENDIAN, ITSASOA IKUSGAI

Arauntza edota Arroitetik pixka bat aurrerago joanda aurkitzen da Sañoa gailurra. Hernio eta itsasoa ikusten dira han goitik, besteak beste. Bisitatzeko leku ederra da hori ere, zalantzarik gabe.



IZAZPI ETA SAMIÑO, MUGAN

Izazpi eta Samiño Azpeitiko tontorrak ote diren ala ez zalantzan jartzen dute batek baino gehiagok. Dena dela, gailur horien tontorretan daude mugarriak, eta beraz, Gipuzkoako beste herri batzuekin mugan dauden arren, Azpeitiaren parte ere badira.



TXALINTXO, AZKOITIA ALA AZPEITIA?

Antzeko zerbait gertatzen da Txalintxo mendiarekin. Azkoitiarrek diote Azkoitian dagoela, eta azpeitiarrek Azpeitiaren parte dela. Baina non dago, zehazki? Irudi honetan ikus daitekeenez, gurutzearen ezker aldean dago Azkoitia eta Azpeitia bereizten dituen mugarria, beraz, Azpeitiko mugen barruan dago tontorra. ■■■

OpenstreetMap eta Mendikat webguneak baliatuz osatu du Uztarriak zerrenda hau, Lagun Onak Mendi Bazkunaren laguntzarekin. Zerrendan 25 gailur dauden arren, posible da gehiago ere izatea.

- | | |
|-----------------------------------|------------------------------|
| ▲ Erlo (1.030) | ▲ Bolaleku (561 metro) |
| ▲ Eskorta (1.012 metro) | ▲ Antxosi (482 metro) |
| ▲ Izazpi (973 metro) | ▲ Murgilgaña (445 metro) |
| ▲ Samiño (933 metro) | ▲ Potzuetamendia (438 metro) |
| ▲ Xoxote (913 metro) | ▲ Endaitzu (412 metro) |
| ▲ Menditxiki (661 metro) | ▲ Argaña (408 metro) |
| ▲ Konditzemuño (651 metro) | ▲ Oñazmendi (397 metro) |
| ▲ Kaikumuño (627 metro) | ▲ Txalintxo (385 metro) |
| ▲ Sañoa (616 metro) | ▲ Letemendia (377 metro) |
| ▲ Kobeta / Pagolagaña (614 metro) | ▲ Agitemendia (369 metro) |
| ▲ Arauntza / Arroite (612 metro) | ▲ Mandiotegi (364 metro) |
| ▲ Erlogoena (584 metro) | ▲ Anabe (352 metro) |
| ▲ Loretogaña (582 metro) | |

SOKA LUZEAN



MIEL A. ELUSTONDO

Hil arte bizi

Igandea zela gogoan daukat. Whattsappa Irene markinarrak Durangotik. "Azkenetan da". Hila zen hurrengo egunean. Arraioa, eta hura mina! Kaxildo. Bilbon hil zen, Getarian lurperatu zuten, eta hantxe da, mahasti artean, itsasoari begira betiko. Gizon gozoagorik, nekez. Handik laster, beste lagun baten txanda. Zuberoan. "Bat-batean hil da". Ekaitz ari zitzaidan idazten, Iruñetik. "Baina nola bat-batean hil dela? Oraintxe astebate feizbuen genbiltzan eta, Madalena gaindi mendi-itxulia egin behar genuela esanez!". Allande. Harexen bidez heldu nintzen Ospitalepera, alemanek Zuberoan egin zituzten txikizioak ezagutzera, kontzentrazio eremuan hildako Amelieren historia, eta zorionez, handik bizirik atera ziren Lasserre ama-alaben berri jakitera. Sü Hazia elkarte. Pastoral bat ez, Altzürükün bi ere egin zituzten historiara. Eskuzabala, jakintsua, alegrea. Addio, baina ez addiorik. Hurrena, whattsappa berriz, jaia berriz ere. Iñaki, Galdoxenekoa. "Azkenetan". Nekane hilzorian. Arraioa. Pandemia atarian hitz egin nuen harekin azkena. Aramaioko etxera bidean harrapatu nuen. Minbizia izana

zuen, gorriak ikusia ere bazen, baina "ondo" zegoela esan zidan, gaizki egon zela, baina ondo zegoela. "Azkenetan". Hila zen hurrengo egunean. Bata bestearen atzetik, kolpe eta kolpe. Eta Kaxildori eder zitzaion garai bateko elizako, sasoi bateko mezatako *Agur Jesusen ama* hartu eta harexen doinu hasi nintzen bertsoak jartzen, neure burua kontsolatze aldera. "Bertsoak ari dira zeruan dekalde / airean hegan datoz, kantuz haren alde / hura izan zelako bizion maitale / maite zintugun maite, maitea Nekane". Maite genuen Kaxildo, maite Allande, maite Nekane... Maite genituen bizia erregalatu ziguten adiskideak eta lagunak. Kaxildo, Allande, Nekane. Prest gaude, baina ez preparatuta, aurtan ondolik joango zaizkigunak agurtzeko. Mina berriz ere. Joko gaitu berriz ere. Bat-batean. Zernahi egiten ari garenean, whattsappak igande eguerdian jotzen duenean. "Azkenetan". Hil arte bizi. Ez da gezurra. ■

PREST GAUDE, BAINA EZ PREPARATUTA, AURTEN ONDOTIK JOANGO ZAIZKIGUNAK AGURTZEKO

BOTEPRONTOAN



AINTZANE GARMENDIA

Lili bat

Leihoaren kanpoaldetik kolpetxoak emanez dabil eguzkia tematuta, aurrean ezarritako gortinei indartsu bultzatuz, erabat lotsagabe. Hori gutxi ez, eta zeruak, txoriek zein loreek ere mugimenduarekin bat egin dute, udaberriaren etorrera lau haizetara zabalduz. Zalaparta honen aurrean ez dut etxetik irtetea beste aukerarik izan.

Bateko oihiak, besteko irribarreak, badirudi eguzki printzak inoizko txerto onenak baino eraginkorragoak direla. Ene! Ezustean harrapatu nau txirrindulari batek bidegorriaren erdian, eta nigan sortutako emozio jasa baretze aldera, paseoan abiatu naiz leku lasaiago batera. Nire harri durarako, orde, bidearen bi aldeetatik agurtu nauten intsektuak eta loratzen ari diren landareak ikusteak ez du nire emozioak indartzea besterik eragin. "Martxoko lorea, ez balitz hobea; apirileko lorea, urrea baina hobea; eta maiatzeko lorea, eza baina hobea", dio esaera ezagun batek.

Azkenean, ezin izan diot tentazioari eutsi. Lore bat hartu dut eskuetan, lili bat. Gero, "hostoz hosto erantz" dut, eta "hark ni". Orduantxe jabetu naiz zein ederra den naturaren legea, eta zein ezjakinak garen gu edertasun hori etengabe hondatzean. ■




TiEN21ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com

MARKETING DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA  ZERBITZUAK